



# TARTEKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY EBC ESTRATEGIA

2022. URTEA

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



# AURKIBIDEA

<b>0</b>	<b>SARRERA</b>	2
<b>1</b>	<b>TESTUINGURUA ETA EGOERA GLOBALA 2021-2022</b>	10
<b>2</b>	<b>JARDUERAREN ANALISIA ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA, DAGOZKIEN HELBURUEKIN</b>	14
	2.1. 1. ardatza. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	16
	2.2. 2. ardatza. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	21
	2.3. 3. ardatza. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	28
	2.4. 4. ardatza. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	35
<b>3</b>	<b>JARDUERAREN ANALISIA ESPARRU TEMATIKOEN ARABERA</b>	42
	3.1. Esparru <b>Instituzionala</b>	43
	3.2. <b>Ehun Ekonomikoa</b> esparrua	53
	3.3. <b>Kultura, Kirola eta Hizkuntza-politika</b> esparrua	63
	3.4. <b>Ezagutza- eta Berrikuntza-sistema</b> esparrua	69
	3.5. <b>Jasangarritasuna eta Lurraldea</b> esparrua	81
	3.6. <b>Gizarte Zutabea</b> esparrua	89
	3.7. <b>Bizikidetza</b> esparrua	98
<b>4</b>	<b>JARDUERAREN ANALISIA ESPARRU GEOGRAFIKOAREN ARABERA</b>	106
	4.1. Egoera orokorra	107
	4.2. Lehentasunezko herrialdeetako jarduera	116
	4.3. Lehentasunezko eskualdeetako jarduera	121
<b>5</b>	<b>2021-2022 ALDIKO JARDUERAREN MONITORIZAZIOA</b>	124
	1.AD. Adierazlea	126
	2.AD. Adierazlea	127
	3.AD. Adierazlea	128
	4.AD. Adierazlea	129
	5.AD. Adierazlea	131
	6.AD. Adierazlea	132
<b>6</b>	<b>INPAKTUA</b>	134
<b>7</b>	<b>ONDORIOAK</b>	142

SARRERA



**2025 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country** (aurrerantzean EBC 2025) egungo XII. Legealdiari hasiera ematean prestatu zen. Estrategia hori aurreko Nazioartekotzeko Esparru Estrategietan oinarritzen denez gero, aurreko ibilbide historikoa errespetatzen da eta beti munduari irekita bizi izan den herrialde baten esperientzia sendoa indartzen da.

Honako txosten hau, muga batzuekin<sup>1</sup>, **EBC 2025** estrategiaren bitarteko ebaluaziotzat har daiteke, 2021. eta 2022. urteak hartzen baititu. Txostenak aldi horretan izan diren jarduerak monitorizatzen ditu eta helburuak lor daitezen errazteko edo eragozteko zer gertatu den edo zer gertatzen ari den aztertzen du. Helburua da, amaitu baino lehen, **EBC 2025** estrategiak hartu nahi duen norabidean behar bezala esku hartzea.

Estrategiaren izateko arrazoiak, lehenik eta behin, EBC 2025 estrategiaren beraren barne-eskakizunari erantzuten dio, **jarraipen-sistema argia definitzen baitu 6. Jarraipen eredia** kapituluan:

*EBC 2025 – Nazioartekotzeko Esparru Estrategiaren inplementazioaren jarraipenari begira, inpaktuaren eta jardueraren neurtzaileak integratzen dituen sistema misto bat proposatzen da.*

Jarraipen eta ebaluaziorako tresnak honako hauek izango dira:

- **Euskadiren nazioartekotzearen erradiografia.**
- **Nazioartekotzeko jarduera monitorizatzeko sistema.**
- **EBC 2025aren urteko txostenak eta Azken txostena.**

Bigarrenik, Estrategiak COVID 19aren pandemiaren ondoren munduan sortutako ingurune berriari erantzuten dio. Erakundeek gai izan behar dute inguruneari buruzko ahalik eta informazio gehien eta etengabe lortzeko, betiere agertoki posible guztiak argiago ikus daitezen eta estrategiak ezartzeko arintasuna ziurtatuko duten azterketa zehatzak egin daitezen.

Hala, **Euskadik 2022an** mundu globalizatuan eta nazioartekotze-dimentsioetan benetan izan zuen **posizioa ezagutzeak** eta **Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak 2022ko abenduaren 31ra arte garatutako jardueren balorazioak** aukera ematen du:

- Euskadik nazioartean duen presentzia eta/edo nazioartekotze-maila modu konparatiboan neurtzeko eta 2015/2022 aldian izan duen bilakaera ebaluatzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiari Euskadi Basque Country 2025 Estrategiaren inguruko ondorioak eta aurkikuntzak emateko — proiektua betetzean egindakoak —, betiere nazioarteko agertokian eragiteko aukerak balia daitezten eta bidezko ekintzak abian jar daitezten, Eusko Jaurlaritzaren balio eta interesen arabera.

I. kapituluan, labur-labur azaltzen dira 2021. eta 2022. urteetako mundu-mailako testuingurua eta ingurunea, eragina izan baitzuten Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren nazioarteko jardueran.

II. III. eta IV. kapituluetan, bestalde, 2021. eta 2022. urteetan garatutako jarduerak aztertzen dira, aldagai estrategikoen, aldagai tematikoen eta esparru geografikoen arabera.

Kapitulu horien irakurketa errazte aldera, EBC 2025 estrategiaren funtsezko kontzeptuak eta egitura laburtzen dira.

EBC 2025 estrategiak 2025erako duen ikuspegiak berretsi egiten du Euskadik indarraldiaren amaieran nazioarteko agertokian izan nahi duen posizioa.

<sup>1</sup> Datuen eskuragarritasunaren eta kalitatearen arloko mugak daude, eta datu-basea erabiltzeko eskuliburua falta da; horrek txosten honen irismena baldintzatzen du.



**Euskadi nazioartean eragile garrantzitsutzat hartzen da, Europako proiektuaren erantzunkidea da eta agenda globalarekin eta giza garapen jasangarriarekin konprometituta dago: herrialde berezia, abegitsua, erresilientea eta berritzailea da, auzolanean lan egiten duen euskal komunitate global gisa.**



Ikuspegi hori lortze aldera —eta kontuan izanik nazioarteko eragile gisa garrantzitsu izateko nahia, Europako integrazio-proiektuarekiko konpromisoa, agenda globalean eta giza garapen jasangarrian laguntzeko borondatea, euskal gizartearen erresilientzia-gaitasuna, izaera abegitsua kanpora begira proiektatzeko nahia eta lan kolektiboaren aldeko eta euskal komunitate globala artikulatzearen aldeko apustua—, EBC 2025 estrategia **lau ardatz estrategikotan** oinarritzen da. Ardatz estrategikoko horiek gidatzen dute nazioarteko jardueraren xedea eta sei printzipiotan/balioetan oinarritutako misioa berresten dute (kanpo-ekintza erabilgarria eta balioekin; auzolanean jardutea; Europa euskarritzat hartzea; gure nortasuna proiektatzea; zeharkakotasuna; Estatu azpiko gobernuen erreferente izatea). Ardatz estrategikoko horiek, gainera, helburu estrategikoen definizioa inspiratzen dute.

Ardatz horiek zehaztu dira, nola proposatutako ikuspegiaren arabera, hala XII. Legealdiko Gobernu Programan nazioartekotzearen arloan zehaztutako konpromisoen arabera.

Lau ardatzak **hamaika helburu estrategikotan** banakatzen dira, hau da, xede nagusiak gauzatzen laguntzen duten hamaika helburutan. Ardatz eta helburu estrategikoko horiek **egitura antolatua eta sistematizatua** osatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-dimentsioa duten **jarduketak** hedatu eta ebaluatze aldera.

## 1. ILUSTRAZIOA. EBC2025 ESTRATEGIAREN ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 1. ARDATZA EUSKADI BASQUE COUNTRYREN KANPO-POSIZIONAMENDUA HOBETZEA

1.1. HE / Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa.

---

1.2. HE / Eusko Jaurlaritzaren kanpo sarea indartzea.

---

1.3. HE / Euskal Komunitate Globala eraikitzea.

### 2. ARDATZA EHUN SOZIOEKONOMIKOAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA

2.1. HE / Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana indartzea.

---

2.2. HE / Gure ehun sozioekonomikoari bere prioektuak nazioartean gauzatzen laguntzea.

---

2.3. HE / Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko.

### 3. ARDATZA EUROPAR PROIEKTUARI EKARPENA EGITEA ETA BERAREN PARTAIDEETAKO BAT IZATEA

3.1. HE / Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea.

---

3.2. HE / Euskal eragileak EBren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea.

---

3.3. HE / Euroeskualdea sendotzea.

### 4. ARDATZA ERRONKA GLOBALAK GAINDITZERA ZUZENDUTAKO EUSKAL EKARPENA INDARTZEA

4.1. HE / Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik.

---

4.2. HE / Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.

---

Ardatz estrategikoak eta helburuak zehaztu ondoren, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzari eta haren sektore publikoari dagokie haien inguruan nazioartean jarduteko planak eta proposamenak antolatzea.

Kanpo-agenda trinkoagoa duten edo nazioartekotzearen arloan berariazko mandatua duten sailek **EBC 2025** estrategiaren esparru estrategikoan biltzen dituzte beren plan sektorialetako nazioartekotzearen arloko jarduerak eta lorpenak.

## 2. ILUSTRAZIOA. EBC 2025 ESTRATEGIAREN NAZIOARTEKO JARDUERAREN ESPARRUAK



### I. **Institucionala - Gobernantza**

- Kanpo-ekintza
- 2030 Agenda
- Gobernantza Pulikoa eta Gobernu Irekia
- Ongasuna eta Ekonomia



### II. **Ehun ekonomikoa**

- Enpresa-nazioartekotzea
- Nekazaritza, arrantza eta elikadura
- Turismoa



### III. **Kultura, Kirola eta Hizkuntza-politika**

- Kultura
- Kirola
- Hizkuntza-politika



### IV. **Ezagutza eta berrikuntzaren sistema**

- Hezkuntza
- Lanbide-heziketa
- Unibertsitateak
- Zientzia, teknologia eta berrikuntza
- Eraldaketa digitala
- Zibersegurtasuna



### V. **Jasangarritasun eta lurraldea**

- Ingurumena
- Energia
- Azpiegiturak eta garraioa
- Lurralde-politika
- Etxebizitza



### VI. **Gizarte-zutabea**

- Gizarte-politikak
- Lana eta enplegua
- Garapenerako lankidetzak
- Osasuna
- Demografia



### VII. **Bizikidetzak**

- Segurtasuna
- Justizia
- Bizikidetzak, Aniztasuna eta Giza Eskubideak
- Berdintasuna

Estrategiak lehenetasunezko herrialde eta eskualde batzuk identifikatzen ditu, eta horietan oinarritzen da Eusko Jaurlaritzak, **EBC 2025** estrategiaren indarraldian, nazioartean garatuko duen jardueraren zati handi bat.

### 3. ILUSTRAZIOA. EBC 2025 ESTRATEGIAREN NAZIOARTEKO JARDUERAREN LEHENTASUNEZKO GEOGRAFIAK





Dokumentu honen V. kapitulan, EBC 2025 estrategiari dagokion Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren nazioartekotze-jarduera monitorizatzeko sistemaren adierazleak azaltzen dira. Horri esker, erakundeen nazioarteko jardueraren jarraipena egin daiteke nazioartekotzearen alderdi guztietan, EBC 2025 strategiaren hasieratik 2022ko abenduaren 31ra bitartean.

VI. kapitulan, Euskadik 2022. urtean nazioartean duen posizioaren bilakaera deskribatzeko baliagarria den Nazioartekotze Erradiografiako adierazleen laburpen-taula jasotzen da.

VII. kapituluak honako tarteko ebaluazio honen ondorioak biltzen ditu. Ebaluazio hori Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren egituran dagoen Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiak zuzentzen du, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen eta sektore publikoko eragileen laguntzarekin.



TESTUINGURUA  
ETA EGOERA  
GLOBALA  
2021-2022



Egungo globalizazio-testuingurua arras aldatzen ari da kanpo-politika tradizionala, batik bat komunikazioekin, digitalizazioarekin, finantza-fluxuekin, nazioarteko merkataritzarekin, migrazio-mugimenduekin eta abarrekin zerikusia duten prozesuen arteko gero eta mendekotasun handiagoaren ondorioz.

Era berean, aldi horretan desintegrazio ekonomiko eta politikorako proiektuak sortzen edo indartzten hasi ziren, eta agendan nazioaz gaindiko mehatxuak eta gai politikoak ezartzen hasi ziren — hala nola klima-aldaketa, elikagaien eta energiaren segurtasuna, krimen antolatua edo nazioarteko terrorismoa—, estatuaren/nazioaren eta nazioarteko testuinguruaren arteko muga ere lausotzeko moduan.

Ingurunearen deskribapenean eta EBC 2025 estrategiaren egoeraren diagnostikoan argi geratu zen 2020. urtera arte etengabeko aldaketa zela gure ingurunearen ezaugarri, VUCA deituriko kontzeptua (hegazkortasuna, ziurgabetasuna, konplexutasuna, anbiguotasuna). Ingurunearen definizio hori baliagarritzat jo zen etengabe aldatzen ari ziren agertokiak elementu sendoezin planifikatze aldera; **hegazkortasuna** etorkizunari buruzko ikuspegi egokiarekin jorratzen zen; **ziurgabetasuna** ezagutzarekin, prestakuntzarekin eta ezagutza horren eguneratze etengabearekin, azken batean, ulermenarekin; eta **konplexutasuna** edozein erakunderen barruan —instituzionala izan edo pribatua izan— ekintzak gauzatzeko argitasunarekin, sinpletasunarekin eta erraztasunarekin. **Anbiguotasunari**, berriz, arintasunarekin egiten zaio aurre, gertatzen diren ustekabeen aurrean azkar erreakzionatzearekin egiten zaio aurre, ustekabe horiek helburuak betetzeaz kezkatzen zen edozein erakunderen plangintza estrategikoaren aurka egin baitzuten.

Edonola ere, **pandemiak eskema guztiak apurtu ditu**. Esan daiteke, 2020. urtetik aurrera, zaharkituta geratu dela erakundeen jarduna azken urteetan bildu duen VUCA kontzeptua, eta **BANI (hauskorra, antsietatekoa, ez-lineala eta ulertezina)** deituriko inguruneari bide eman diola.

**Pandemiak eta 2022ko otsailean gertatutako Ukrainaren inbasioak munduan eragin duten kaos dela eta, oso denbora laburrean aldatu da egoera globala, eta errealitateari zentzua aurkitzen lagunduko duten kontzeptu berriak behar dira.**

Sistemen hauskortasuna alderdi konstante bihurtu da, gauzak ez dira modu linealean gertatzen, eta horietako asko ulergaitzak dira; hortaz, kolektibo batzuen (ez beti eragin handienaren pean dauden edo kaltetuenak diren kolektiboen) antsietateak eta beldurrak gure errealitatea behin eta berriz ezagutzera eta dokumentatzera behartzen gaitu.

COVID-19aren pandemiak inpaktu disruptiboa izan du nazioarteko jardueraren dinamiketan, eta eragin larria izan du giza bizitzaren alderdi guztietan.

2021. urtean, haatik, "normaltasun berrirako" aurrerapen motel baina segurua ahalbidetu duten gertakari edo gertaera positiboak izan dira gure ingurunean.

## 2021

- **2021eko urtarrilaren 1etik** aurrera, Erresuma Batuak Europar Batasuneko legeria aplikatzeari utzi zion. **Brexitaren** azken etapa zen, mende honetan Britainian inpakaturik handiena izan duen gertakaria. Urtarrilaren bataren ondoren, Brexitaren ondorioak arlo guztietan nabaritu ziren: ekonomian, merkataritzan, politika nazionalan eta nazioarteko politikan. Euskadiren kasuan, euskal enpresek, oraindik ere, lehentasunezkoztat jotzen dute britainiar merkatua, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza instituzionala oso modu positiboan baloratzen dute, laguntza teknikoa eta informazio estrategikoa ematen baititu Londresko Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren (BTI) bulegoaren bitartez.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, **2021eko urtarrilaren hasieran jarri zen abian COVID-19aren aurkako txertaketa**, eta, **2021eko irailaren 30ean**, itxi ziren txertaketa masiboko zentroak. Aldi horretan, **COVID-19aren aurkako 2.057.175 dosi** jarri ziren zentro horietan eta beste puntu batzuetan. **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 88,5** immunizatuta zegoen egun horretarako, eta, maskara jantzita bazen ere, pixkanaka-pixkanaka mugikortasuna berreskuratzen hasi zen. Herrialde gehienetan eskatzen zen COVID-ziurtagiriarekin itzuli ziren nazioarteko bidaiak, Europan behintzat.
- Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurkeztu zen, eta bertan inbertsio eta erreformen agenda osoa zehaztu zen, baita xedeak eta helburuak eta horien jarraipena eta kontrola egiteko adierazleak ere. Espainia izan zen mekanismo horren onuradun nagusietako bat guztira 140.000 milioi eurekin. Zenbateko horretan barne hartzen dira itzuli behar ez diren transferentzian jarritako 69.528 milioi euro. Gainera, mailegu bidez 70.000 milioi euro baino gehiago eskura daitezke 2026ko abenduaren 31ra arte.
- **Tokioko Joko Olinpikoen** inaugurazio-ekitaldian **30 euskal olinpikok parte hartu zuten**.
- **COP26** konferentzia urriaren 31n hasi zen Eskozian, eta ia guztiak dezezionatu zituen akordio batekin amaitu zen. **Nazio Batuen Erakundeko** idazkari nagusiak **adierazi zuen lortutako konpromisoa ez zela nahikoa**. Berotze globala Parisko akordioan finkatutako 1,5°C-tara mugatzeko helburuari eutsi zitzaion.
- **Angela Merkelek** bizitza politikoari **utzi zion**.
- 2021eko abendutik, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen **Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE)** txandakako lehendakaritza. Zazpi lurraldek osatzen dute elkarte hori: Akitania Berriak, Aragoik, Kataluniak, Euskadik, Okzitaniak, Nafarroak eta Andorrak.
- **2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak % 23 hazi ziren** aurreko urtearekin alderatuta, **25.665 milioi eurora** iritsi baitziren, hau da, 4.800,9 milioi gehiago. Zenbateko horiek **pandemiaren aurrekoak, 2019koak, baino handiagoak ziren**.

## 2022

- Otsailaren 24an Errusiak **Ukraina inbaditu** zuen eta Gerra Hotzaren amaieratik ezagutzen ez zen krisia zabaldu. Ukrainari babesa adierazi zioten NATOko herrialdeen aurrean, Kremingo buruak arma nuklearra erabiltzeko mehatxua egin zuen, eta "bitarteko guztiak" erabiltzeko prest agertu zen. Bigarren Mundu Gerraren amaieratik, Europan izan den **errefuxiatu**-fluxurik handiena eragin du gatazkak, eta milaka eta milaka soldaduren eta zibilen heriotza eragiten ari da.
- 2021ean hornidura-kateetako arazoengatik hasi zen **prezioen igoera** areagotu egin zen **Ukrainako gerraren** ondorioz; izatez, oso azkar garatzen ari zen inflazio batean eta energia-krisi sakon batean murgildu zuen **Europa** gerrak, eta enpresen **produkzio-kostuak handitu** zituen —horietako asko jada ahulduta zeuden pandemiaren ondorioz—.
- "Munduko ekonomia 1970. urteaz geroztik izan den energia-krisirik larriena jasaten ari da" adierazi zuen Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak Euskadira iristen ziren Europako funtsen berri emateko agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarrean. Une horretara arte, 2021-2023 aldirako **1.000 milioi euro** inguru bereganatzea lortu zuen. Horrela, 856 milioi Eusko Jaurlaritzak kudeatu zituen eta 143 milioi Estatuak.
- **2022ko Euskadiko Barne Produktu Gordin erreala 2019koa baino handiagoa izan zen**, eta, hala, pandemiaren aurreko Barne Produktu Gordinaren balio erreala leheneratu zen, baita hasierako bolumen-indizea 1,1 puntutan gainditu ere.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa % 8,4koa** zen, 2022ko hirugarren hiruhilekoan baino ehuneko **puntu-erdi handiagoa**. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, **2022ko laugarren hiruhilekoan jarduera-tasa % 56,2koa izan zen**, aurreko hiruhilekoaren maila berean. Urtebetean, langabezia-tasa **2021eko laugarren hiruhilekoaren % 9,9tik 2022ko laugarren hiruhilekoaren % 8,4ra** jaitsi zen, ehuneko 1,5 puntu gutxiago.

JARDUERAREN  
ANALISIA ARDATZ  
ESTRATEGIKOEN  
ARABERA, DAGOZ-  
KIEN HELBURUEKIN



Kapitulu honetan, 2022ko abenduaren 31n, **Eusko Jaurlaritzako sailek eta haren sektore publikoak 2021-2022 aldian EBC 2025 estrategiaren esparruan garatutako jarduerak aurkezten dira, betiere lau nazioartekotze-ardatz estrategikoetan eta dagozkien helburu zehatzekin.**

- **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea.**
- **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea.**
- **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea.**
- **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea.**

Tarteko ebaluazioko txosten honen itxiera-datan, EBC 2025 strategiaren monitorizazio-sisteman Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak sustatutako **1.914 nazioartekotze-jarduera** erregistratu dira. **Bederatziehun eta berrogeita bi (942) jarduera** 2021. urtean, eta **bederatziehun eta hirurogeita hamabi (972)** 2022. urtean.

#### 1. TAULA. NAZIOARTEKOTZE-ARDATZEAN GARATUTAKO JARDUEREN KOPURUA, HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERA ETA 2021-2022 URTEETAN

Ardatza	Jarduera kop.	Helburua	Jarduera kop.		
			Guztira	2021	2022
<b>1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea</b>	231	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	175	92	83
		1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	15	4	11
		1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	41	18	23
<b>2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea</b>	616	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	237	109	128
		2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzen laguntzea	199	102	97
		2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	180	91	89
<b>3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea</b>	731	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	200	61	139
		3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	424	257	167
		3. 3. Euroeskualdea sendotzea	107	62	45
<b>4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea</b>	336	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	198	86	112
		4. 2. Euskadi Basque Country nazioarteko erakunde nagusien artean posizionatzea.	138	60	78
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.914</b>	<b>942</b>	<b>972</b>



2021-2022 aldian, **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** nazioartekotze-ardatza da nagusi, **731 jarduera** biltzen baititu (jarduera guztien % 38,19). 2021. urtean ardatz horretan 380 jarduera erregistratu ziren eta 2022. urtean 351 jarduera.

Gero, **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatza nabarmentzen da, **616 jarduerarekin** (% 32,18). 302 jarduera 2021. urtean erregistratu ziren eta 314 jarduera 2022. urtean.

Garatutako jarduera kopuruaren arabera, hirugarren nazioartekotze-ardatza **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatza izan zen, 2021-2022 aldian **336 jarduera** erregistratu baitziren (% 17,55). Guztira, 146 jarduera erregistratu ziren 2021ean eta 190 jarduera 2022an.

Azkenik, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean **231 jarduera** erregistratu ziren, 2021-2022 aldian erregistratutako jarduera guztien % 12,07. 2021ean garratu ziren jarduera horien % 49,35, eta 2022an gainerako % 50,65a.

## 2.1.

### 1. ardatza. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea

Lehenengo ardatz honetan jasotzen da Euskadik nazioartean duen proiektzioa eta posizionamendua handitzeko Eusko Jaurlaritzaren asmoa, Euskadi "nazioartean garrantzia duen eragile garrantzitsu" aitortu dezaten.

Egungoaren moduko ingurune konektatu batean, nazioartean posizionamendu sendoa edukitzeak berarekin dakar eragin-ahalmen handiagoa izatea eta norberaren interesen defentsa. Euskadik gaur egun kanpoaldean duen posizionamendua hobetzera begira, hiru helburu estrategiko ezarri dira: **herrialde-marka indartsu eta erakargarria, kanpo-sare instituzional zabaldua eta ongi artikulatutako euskal komunitate global eta dinamikoa.**

#### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean erregistratutako 942 jardueretatik, **114 jarduera** (% 12,1) **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzaren barruan biltzen dira. 2021ean jarduera guztien erregistratu duen **nazioartekotze-ardatza** da.

2. TAULA. 1.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2021	1. ardatzaren gaineko %a	2021eko guztizkoaren gaineko %a
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	92	% 80,70	% 9,77
	1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	4	% 3,51	% 0,42
	1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	18	% 15,79	% 1,91
<b>GUZTIRA</b>		114	% 100,00	% 12,10

### 1.1.HE. GURE HERRIALDE-MARKA INDARTZEA: BEREIZIA, ERAKARGARRIA ETA INKLUSIBOA

Jarduera horien % **80,7** lotzen dira **1.1.HE. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburuarekin. Jarduera horiek 2021ean garatutako jarduera guztien % 9,77 dira.

Herrialde batek kanpoaldean duen ospea eta irudia funtsezko faktoreak dira erabakiak hartzeko garaian; eragina dute atzerriko inbertsioen kokapenean, bidaiatzeko edo bisitatzeko helmugan edo ikasteko, bizitzeko edo ekintzailertzan aritzeko lekuan. Hori dela eta, pertzepzio positiboetan **oinarritzen den herrialde-marka eraikitzea** ohiko osagaia da nazioartekotze-estrategietan.

**2017an, Euskadi Basque Country marka sortu zen**, Eusko Jaurlaritzak eta haren eragile sozioekonomikoek partekatutako hedapen-tresna gisa. Horren ondorengo **EBC 2025** strategiaren helburua da **Euskadi Basque Country marka indartzea eta sendotzea**, Euskadi **nazioartean modu berezian** proiektu dadin, eta, horretarako, euskal eragile publikoek eta pribatuek modu koherentean eta partekatuan nabarmentzea gure izaera islatuko duten eta Euskadiren irudi berezia, erakargarria eta inklusiboa islatuko duten **balio eta ezaugarri bereziak**.

2021ean hasi zen EBC 2025 estrategiarako Euskadi Basque Country marka sustatzeko plan operatiboa.

Helburu estrategiko horren barruan 2021ean garatutako **92 jardueren % 70 sei esparru tematikotan** garatu ziren (**Kanpo Harremanak; Berdintasuna; Turismoa; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; Kultura; eta Segurtasuna**), nahiz eta **19 esparru tematikotan** garatu ziren jarduerak.

2021ean, garrantzitsutzat jotzen da **2025 Euskadi Basque Country Nazioartekotzeko Esparru Estrategia** eta 2025 Kanpo Harremanetarako Plana onartzea eta aurkeztea, baita **Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiak** beste herrialde batzuetako gobernuari, nazioarteko erakundeei, kidego diplomatikoari eta abarri egindako askotariko gaien aurkezpenak ere.

**Berdintasuna** esparruan, Euskadik, emakumeen garapenaren alderdi guztietan, Generation Equality Forumean parte har dezan UNWOMEN Hecomprarters eta México Country Office erakundeekin izandako harremanak nabarmentzen dira —NBE Emakumeak erakundeak deitutako Generation Equality Foruma genero-berdintasunerako munduko ekimen nagusia da—. Emakunde eta Argentinan (Merosur), Txilen, Mexikon eta abar Euskadik dituen ordezkariak helburu horretan elkarlanean aritu dira.

**Turismoa** esparruan, Euskadiren erakargarritasunak eta berezitasunak ere proiektatu ziren nazioartean sektoreko erreferentzia diren ekitaldien bidez, hala nola ITB Tourism Berlin eta BTM World azokaren bidez —turismo-industriarako ekitaldi global nagusia—, ILTM Cannes azokaren bidez eta TravelMatch Norway gisako topaketen bidez (Norwegian urtero egiten den workshopa).

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** esparruan, aipamen berezia merezi du Italia, Finlandia, Erresuma Batua, Singapur eta abarreko startuppei BIND 4.0 azelerazio-programaren bosgarren edizioa aurkeztu izanak, baita Euskadin ezartzeko interesa duten enpresekin egindako B2B online bilerak eta azokak ere (Invest in the Basque Country-Crescendo Worldwide).

**Kultura** esparruan zerrendatzen ditugu Quebec eta Flandriako kultura-fokuak, unibertsitateko katedrak eta irakurletzak, eta abar.

**Segurtasuna** esparruan nabarmentzen dira 40 herrialdeetako baino gehiagoko enbaxadekin eta kontsulatuarekin egindako alde askotariko edo alde biko bilerak eta topaketak.

## 1.2.HE. EUSKO JAURLARITZAREN KANPO-SAREA INDARTZEA

**1.2.HE. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea** helburu estrategikoan biltzen dira 1.A ardatzean erregistratutako jardueren % **3,51**, hau da, 2021ean garatutako jardueren % 0,42.

Ardatz horretako jardueraren helburua da Eusko Jaurlaritzaren kanpoko presentzia indartzea. Hain zuzen, helburu horrekin hedatu eta irekiko dira Euskadiren beste ordezkari batzuk eta Basque Trade and Investment (BTI) Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren bulegoak.

Euskadik atzerrian duen ordezkari-sarea, hau da, Eusko Jaurlaritzak hirugarren herrialdeetan duen hedapena, funtsezkoa da EBC 2025 estrategia abian jartzeko eta garatzeko, baita euskal eragileen nazioarteko jarduerari laguntzeko ere. Sare horrek, euskal errealitatearen bozgorailu gisa jarduteaz gain, herrialdearen eta kokalekuaren gakoak ulertzeko, premia eta aukerak detektatzeko eta harremanak sortzeko aukera ematen duen antena gisa ere jarduten du.

2021ean garatutako jarduera zehatzen artean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta 2025 Kanpo Harremanetarako Planak EBC 2025 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia aurkeztu zuten **Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseiluaren** aurrean, EBC 2025 strategiaren preskriptore diren heinean.

Basque Trade e Investimento do Brasil SA sozietate publikoaren sorrera; Queretarok eta Euskadik sinatutako MOUren jarraipena, eta Euskadi Basque Country Laguna saria jaso duten pertsona ospetsuen izendapena.

## 1.3.HE. EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

**1.3.HE. Euskal Komunitate Globala eraikitzea** helburu estrategikoak 1.A ardatzean garatutako jardueren % **15,78** biltzen ditu, 2021. urtean zehaztutako lau nazioartekotze-ardatzetan garatutako jarduera guztien % 1,91 hain zuzen.

Euskal Etxeen sarea indartu eta osatuko duen eta Euskadiko eta kanpoko euskal herritarrak elkarrekin lotuko dituen **Euskal Komunitate Globala** sortzea proposatzen da, Euskadi Basque Country markaren preskriptore gisa.

Migrazio-fluxuen helmugak aldatu egin dira, baita migrazio-fluxuak eragiten dituzten faktoreak ere. Horrek aldatetarako eragin ditu, halaber, kanpoko euskal komunitatearen konfigurazioan. Diaspora tradizionalako kideei gehitu zaizkie kanpora ikastera edo ikerketa-proiektuak garatzera irten diren beste pertsona batzuk. Beste pertsona horiek enpresen edo kultura-sektorearen nazioarteko-

tze-prozesuaren parte gisa edo garapenerako lankidetzaren parte gisa irten dira kanpora, besteak beste. Era berean, aurrerapen teknologiko eta digitalen ondorioz, harremanetan jartzeko moduak aldatu egin dira, eta, urrun egonik ere, harreman arina eta hurbila izateko aukera dugu. Patroi berri horiek kontuan izanik, Euskal Komunitate Globalaren barruan zenbait komunitate daude eta bakoitzak ezaugarri propioak ditu.

Helburu horretako jarduera horien % 89k **Kanpo Harremanak** egin zituzten eta zenbait talderi zuzendutako programak bildu zituzten, euskal komunitatea sustatu eta bultzatze aldera —esate baterako, kanpoan dauden euskal komunitateko gazteei zuzendutako Gaztemundu programa, Euskadiko errealitatea ezagutzeko eta arlo horretan prestatzeko; Euskara Munduan programa, Euskal Etxeen esparruan euskara ikastea eta erabiltzea sustatzeko; eta Euskal Etxeentzako eta Federazioentzako dirulaguntzen lerroa, jarduera sustatzeko eta azpiegiturak mantentzeko—.

Era berean, Euskadi ikusarazteko ekitaldiak barne hartzen ditu, hala nola Euskararen Nazioarteko Eguna (Txile); Picasso Presents Gernika dokudramaren proiektzioa New Yorkeko Euzko Etxean; New York 2021 Hiriko Maratoiaren harrera; eta Kimuak on line film laburren zikloa kanpoan dagoen euskal komunitate osoarentzat.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022an erregistratutako 972 jardueretatik, **117 jarduera** (% 12,04) **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** nazioartekotze-ardatzaren barruan kokatzen dira, 2021ean baino hiru jarduera gehiago. 2021. urtean bezalaxe, 2022. urtean jarduera gutxien erregistratu duen ardatza da.

### 3. TAULA. 1.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2022. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2022	1. ardatzaren gaineko %a	2022ko guztizkoaren gaineko %a
<b>1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea</b>	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	83	% 70,94	% 8,54
	1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	11	% 9,40	% 1,13
	1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	23	% 19,66	% 2,37
<b>GUZTIRA</b>		117	% 100,00	% 12,04

#### 1.1.HE. GURE HERRIALDE-MARKA INDARTZEA: BEREIZIA, ERAKARGARRIA ETA INKLUSIBOA

Jarduera horien % **70,94** lotzen dira **1.1.HE. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburuarekin. Jarduera horiek 2022an garatutako jarduera guztien % 8,54 dira.

2022an **20 esparru tematikotan** sailkatutako **83 jarduera** garatu ziren. Esparru hauek nabarmentzen dira: **Kirola; Kanpo Harremanak; Turismoa; Berdintasuna; Ogasuna eta Ekonomia; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura; eta Zibersegurtasuna**. 7 esparru tematiko horietan biltzen dira 1.1.HE helburuarekin garatutako jarduera guztien % **69**.

**Kirola** esparruan garrantzi handikoa da 2022an itxi zen Frantziako Tourra 2023an Euskaditik irte-teko akordioa ("Tour de France: Grand Départ Pays Basque 2023"), baita nazioarteko federazioetan aurkeztutako euskal selekzioen ofizialtasunerako eskaerak ere.

**Kanpo Harremanak** esparruan aipatu behar dira Euskadi Basque Country markaren plan operati-boaren amaiera eta onarpena, markaren aurkezpenak, Gernikako bonbardaketaren oroitzapeneko ekitaldiak, eta abar.

**Turismoa** esparruari dagokionez, egiaztatu da parte hartzen jarraitu dela nazioarteko azoketan, bi-daia eta turismoaren sektoreko Tokioko JATA azokan, luxuzko turismoari berariaz eskainitako Emo-tions nazioarteko azokan, eta abar.

**Berdintasuna** esparruko 2022. urteko aurkezpenak Ameriketako herrialdetan oinarritu dira.

**Ogasuna eta Ekonomia** esparruak lan handia egin zuen Parisen Ekonomia Lankidetzeta eta Garape-nerako Antolakundearen aurrean eta zenbait rating-agentzien aurrean.

Eta **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura** esparruan nabarmentzen da Euskadik Düsseldorf-eko (Alemania) PROWEIN azokan parte hartu izana.

## 1.2.HE. EUSKO JAURLARITZAREN KANPO-SAREA INDARTZEA

**1.2.HE. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea** helburu estrategikoak biltzen ditu 1.A arda-tzean erregistratutako jardueren % **9,40**, hau da, 2022an garatutako jardueren % 1,13.

**2022ko gertakaririk garrantzitsuena Euskadik Frantzian duen ordezkari-tza irekitzea izan da.**

Era berean, nabarmentzen da Basque Trade and Investment agentziak **Turkian eta Hego Korean** ekonomia-sustapeneko beste bi bulego zabaldu izana.

## 1.3.HE. EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

Azkenik, **1.3.HE helburu estrategikoak** 1.A ardatzean garatutako jardueren % **19,66** biltzen ditu, 2022. urtean garatutako jarduera guztien % 2,37 hain zuzen.

2022an **hiru esparru tematikotan** sailkatutako **23 jarduera** garatu ziren. **Kanpo-harremanetan** bil-tzen dira **1.3.HE** helburuan garatutako jarduera guztien % **87** (erregistratutako 23 jardueretatik 20).

Helburu horren barruan zenbait jarduera berritzaile erregistratu dira, hala nola 2022ko uztailaren 5ean egindako **Euskal Komunitate Global eta Digitalaren lehen topaketa digitala**.

Bestalde, Covid-19aren ondoriozko mugikortasunaren murrizketak desagertu ondoren, berriro ere egin dira aurrez erregulartasunez egiten ziren topaketak, hala nola Mexikoko Euskal Etxean urtero egiten den euskal enpresen bilera —Querétaro, Guanajuato, Puebla, Mexiko Estatuko eta Mexiko Hiriko 33 euskal enpresek hartu zuten parte— edo Txilen ospatutako Euskal Diasporaren Eguna, Txileko Unibertsitate Katoliko Pontifizioko ikasleekin.

## 2021-2022 BIURTEKOKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021-2022 aldian 1.914 jardueretatik, **231 jarduera** (% 12,07) **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** nazioartekotze-ardatzaren barruan biltzen dira. 2021-2022 al-dian jarduera gutxien erregistratu duen ardatza da.

2021. urtean 235 jarduera horien % 49,35 garatu ziren, eta 2022. urtean gainerako % 50,65a. Biur-tekoan jarduerak hazkunde lineal konstantea izan dute, pixka bat handiagoa 2022an (+ % 2,63). Ga-ratatutako jardueren tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da 2022an jarduera handitu egin zela

**1.2.HE. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea** helburuan. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, Parisen Frantziako ordezkari-tza zabaltzea eta Hego Korean eta Turkian BTIren bulegoak irekitzea.

#### 4. TAULA. 1.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021-2022 ALDIA (KOP.)

Ardatza	Helburua	2021	2022	2021-2022
<b>1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea</b>	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	92	83	175
	1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	4	11	15
	1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	18	23	41
<b>GUZTIRA</b>		114	117	231

## 2.2.

### 2. ardatza. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea

Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea da Eusko Jaurlaritzaren kanpo-jardueraren zutabe nagusietako bat. Oinarritzen da euskal ehun sozioekonomikoa osatzen duten eragileen gaitasun produktibo, kultural, komertzial eta turistikoaren balioa nazioartean nabarmentzeko aukerak detektatzean, zubien sorreran eta tresnen garapenean.

**2. ardatz hau hiru helburu estrategikotan** artikulatzen da. **Lehenik** eta behin, **nazioarteko erakunde eta sareekin eta EBC 2025 estrategiaren lehentasunezko herrialde eta eskualdeekin abian diren nazioarteko harremanak** egituratzen eta finkatzen jarraitzen da, Euskadiren interesei zuzenean heltzen dieten edo Euskadi ezagutarazteko eta Euskadirekin harremanak izateko interesa duten heinean.

**Bigarren**, Eusko Jaurlaritzak esparru ekonomikoarekin zuzenean lotutako **nazioartekotze-proiektuen hedapena sendotzen eta laguntzen** jarraitzen du, hala nola lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien sektorea, edo euskararekin edo euskal kulturarekin, ezagutzarekin eta berrikuntzarekin lotutako industria- eta enpresa-sarea. Horretarako, **nazioartekotzeari laguntzeko plan sektorialak** edo nazioartekotzearen arloko jarduketako ildoak baliatzen dira, esparru guztietan. Zerbitzu espezializatuen aukera zabala dago, eragile bakoitzaren premien arabera; erakundeen arteko sinergiak

sortzen dira eta finantzaketa-tresnak jartzen dira nazioartekotze-programetan parte hartzen dutenen esku. Horrela, zubiak eraikitzen dira, lankidetzak sortzen dira, kanpoan eragiteko ahalmena areagotzen da eta aukera berriak identifikatzen dira.

Ardatz honen hirugarren helburu estrategikoa **ezagutza eta talentua erakartzean** eta **proiektu eta inbertsio berritzaile eta eraldatzaileak egitean** datza. Izatez, XII. Legealdiko Gobernu Programan nazioartekotzearen arloan hartutako konpromisoak lortzen laguntzen dute.

## 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021ean erregistratutako 942 jardueretatik, **302 jarduera** (% 32,06) **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** nazioartekotze-ardatzean biltzen dira. 2021ean jarduera gehien garatu duen bigarren nazioartekotze-ardatza da.

### 5. TAULA. 2.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2021	2. ardatzaren gaineko %a	2021eko guztizkoaren gaineko %a
<b>2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea</b>	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	109	% 36,09	% 11,57
	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzen laguntzea	102	% 33,77	% 10,83
	2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	91	% 30,13	% 9,66
<b>GUZTIRA</b>		302	% 100,00	% 32,06

#### 2.1.HE. HARREMAN INSTITUZIONALAK INDARTZEA ETA NAZIOARTEKO BAZKIDE ETA ALIANTZEKIN EGITEN DEN LANA SAKONTZEA

Jarduera horien % **36,09** lotzen dira **2. ardatzeko 2.1.HE** helburuarekin. Jarduera horiek 2021ean garatutako jarduera guztien % 11,57 dira.

Eusko Jaurilaritzak harremanak ditu nazioarteko eragile instituzional ugariarekin, euskal errealitatea zabaldu, beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutu eta elkarlanerako aukerak eta interes erakideak detektatze aldera.

Alde biko eta alde askotariko harreman horiek bazkide estrategikoen sarearekin eta Euskadirekin dagoeneko konpromisoa duten nazioarteko erakundeekin egin ohi dira. Nazioartean ibilbide eta esperientzia zabala duen gobernu irekia denez gero, modu ordenatuan eta sistematikoan lan egiten da erakunde eta instituzio multilateralen identifikazioan, baita interes berdinak dituzten eta proiektuak elkarlanean garatzeko aukera ematen duten eskualde eta herrialde garrantzitsuen identifikazioan ere. Gobernuak modu aktiboan parte hartzen du foro sektorial estrategikoetan, eta itun egonkorak

eraikitzen ditu lehentasunezko bazkide estrategikoekin, bereziki Euskadiren garapenerako eta gure interesen sustapenerako.

Enpresa-ehunaren nazioartekotzea lehentasun estrategikoa da, eta, horrekin batera, ezagutzak, euskal kulturak eta hizkuntzak, hezkuntzak eta turismoak osatutako ekosistemaren nazioartekotzea ere bai. Eusko Jaurlaritzako sailen jarduketak koordinatzen ditu Euskadik atzerrian dituen ordezkariarekin, BTIren bulego-sarearekin eta Etxepare Institutuko katedra eta irakurle-sarearekin.

Gero eta gehiago bultzatzen da Euskadik nazioarteko sareetan parte har dezan. Euskal interesentzat bereziki garrantzitsuak diren sareetan, parte-hartze aktiboa bultzatzen da, baita horien gobernantzan erantzukizun- eta lidergo-rolak bereganatzea ere.

2021ean **11 esparru tematikotan** sailkatutako **109 jarduera** garatu ziren. Nabarmentzen dira, batik bat, **Kanpo Harremanak** esparrua —helburu estrategiko horretan garatutako jardueren erdiekin baino gehiagorekin— eta, ondoren, **Enpresen Nazioartekotzea** eta **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza**. 3 esparru tematiko horietan metatzen dira 2.1.HE helburu estrategikoan garatutako jardueren guztien **% 80,7** (erregistratutako 109 jardueretako 88).

Lehendakariak eta Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-kargudunek lan-bilerak egin dituzte Euskadirentzat lehentasuna duten eskualde eta herrialde askotako enbaxadoreekin, kontsulekin eta nazioarteko erakunde garrantzitsu ugarietako goi-kargudunekin. Horien artean, 2021ean, nabarmentzen dira: lehendakariak eta Jan Jambon Flandriako presidentek sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; Bavariako Gobernuarekin sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; lehendakariak eta Mark Drakeford Galesko lehen ministroak egindako elkarriketa; Korsikako Kolektibitatearekin sinatutako Lankidetzaren Memoranduma; lehendakariak Paraguaiko Industria eta Merkataritza ministroarekin, Saharako Errepublikaren Arabiar Demokratikoko Lankidetzaren ministroarekin eta abarrekin izandako topaketak; eta abar.

**Enpresen Nazioartekotzea** eta **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** esparruetako lan-bilerek eta harremanek **izaera ekonomiko, zientifiko eta teknologiko** nabarmena dute, eta horien artean barne hartzen dira, besteak beste, RIS3ren sektoreetako, nagusiki, plataformetan eta zuzeneko eta alderantzizko misio birtualetan edo presentzialetan parte hartzea, eta atzerriko ordezkariak Euskadiko Parke Teknologikoak bisitatzea.

## 2.2.HE. GURE EHUN SOZIOEKONOMIKOARI BERE PROIEKTUAK NAZIOARTEAN GAUZATZEN LAGUNTZEA

**2.2.HE. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzen laguntzea** helburu estrategikoan biltzen dira 2.A ardatzean garatutako jardueren **% 33,77**, hau da, 2021. urtean garatutako jarduera guztien % 10,83.

Euskal ekonomiaren irekiera-maila handia da, gure ehun ekonomikoa eta sozioekonomikoa gero eta nazioartekoagoa da, eta nazioarteko merkatuetan gero eta interdependentzia handiagoa du. Hortaz, oso modu positiboan baloratzen da Eusko Jaurlaritzak nazioarteko merkatuetara irekitzeko eta horietan finkatzeko ematen duen babes instituzionala. Babes publikoa duten zenbait nazioartekotze-plan sektorialen bidez sustatzen eta bultzatzen da enpresa-ehunaren, kultura-sektorearen, unibertsitate-sistemaren eta beste esparru batzuen kanpo-jarduera.

Nazioarteko proiektuak egiteko akonpainamendu integraleko zerbitzu eta finantza-tresna ugari daude. Horiei esker, modu individualizatuan erantzungo zaie premiei, betiere herrialdeetako testuinguruak kontuan hartuta eta nazioarteko negozioak garatzeko egungo erronkak kontuan hartuta.



2021ean **2.2.HE** helburu estrategikoan **9 esparru tematikotan** sailkatutako **102 jarduera** garatu ziren. Batez ere **Enpresen Nazioartekotzea, Kanpo Harremanak** eta **Kultura** nabarmentzen dira. 3 esparru tematiko horietan metatzen dira garatutako jarduera guztien **% 80,4** (erregistratutako 102 jardueretako 82).

Berrogeita hamar misio presentzial eta birtual baino gehiago egin ziren, zuzenak eta zeharkakoak, Europako, Amerikako eta Asiako zenbait merkatuekin, **Ris3 Euskadiko jarduera ekonomikoko sektoreei** begira. Adibide gisa, hauek nabarmentzen dira: Akitania Berriko eta Euskadiko Bioosasun Industrien 6. Topaketa; Euskadiko eta Galesko enpresen arteko enpresa- eta erakunde-misioa, 2021eko martxoko aste oso batez modu birtualean egin zena osasunaren eta bizi-zientzien sektorean elkarlanean aritzeko; edo Ekonomiaren Garapeneko sailburuak Milango makina-erremintaren azokan egindako bisita.

Europar Batasuneko eta **Kanpo Harremanetako** Idazkaritza Nagusiak 14 jarduera babestu zituen helburu estrategiko horren barruan, eta nazioarteko proiektuak egiteko nazioarteko erakundeen tresnei buruzko informazio estrategikoa eta sarbide-gakoak eman zituen.

**Kulturaren** arloan, laguntza integrala eman zion kulturaren eta sorkuntzaren arloko industriaren sektoreari (arte eszenikoak, argitalpenen sektorea, musikaren sektorea, ikus-entzunezkoa, eta abar).

### **2.3.HE. EZAGUTZA ETA GAITASUNAK ERAKARTZEN LAGUNTZEA, TRANTSIZIOEI ERANTZUTEKO (TEKNOLOGIKO-DIGITALA ETA BERDEA)**

**2.3.HE. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)** helburu estrategikoan biltzen dira 2.A ardatzean garatutako jardueren **% 30,13**, hau da, 2021ean garatutako nazioartekotze-jarduera guztien **% 9,66**.

Helburu estrategiko horren xedea da talentua eta proiektu eraldatzaileak erakartzea, Euskadik bere gaitasunak handitu ditzan eta, hartara, XII. Legealdiko Gobernu Programan deskribatzen den trantsizio hirukoitzaren erronkei arrakastaz erantzun dakien.

Ardatz estrategiko hori betetzeko, elkarlan estuan jardungo da Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sare osoarekin eta Euskal Komunitate Globalarekin.

2021ean **18 esparru tematikotan** sailkatutako **91 jarduera** garatu ziren. Nabarmentzen dira, batez ere, **Enpresen Nazioartekotzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa eta Kanpo Harremanak**. 4 esparru tematiko horietan metatzen dira 2.3.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien **% 73,6** (erregistratutako 91 jardueretako 67).

**Enpresen Nazioartekotzearen** esparruan barne hartu ziren nazioartekotze-bekak, BEINT, Brexit-jardunaldiak, pandemiak eragindako mugikortasun murrizketei buruz Klusterren kontsultak, eta abar. **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren** esparruan, nabarmentzen da EIT Manufacturing-en sarean sartu izana eta Digital Innovation Hubs Sareak zenbait herrialdetan egindako bileretan parte hartu izana.

**Unibertsitate eta Ikerketa** esparruan, askotariko jarduerak zerrendatzen dira, hala nola Ikerbasque Research Professor, Research Associate eta Research Fellow programak, ikerketa-talentua erakartzeko programak —programa horien bidez, nazioartean esperientzia duten zenbait herrialdetako ikertzaileak kontratatzen dira, Euskadiko unibertsitateetan eta I+Gko zentroetan sar daitezen—, doktoratu aurreko egonaldi laburren programa (Egonlabur), ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa aplikatzen ez den zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak, ikertzaile doktoreen mugikortasun-programa (Iker mugikortasuna), eta ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak.

Nabarmentzekoa da, halaber, EUSTATEk parte-hartzaile birtual gisa parte hartu izana 2021eko ENBES The European Establishment Statistics Workshop-ean, betiere nazioarteko lankidetzaren estatistika bultzatze aldera.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022an erregistratutako 972 jardueretatik, **314 jarduera** (% 32,3) **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** nazioartekotze-ardatzean biltzen dira. 2021. urtean bezalaxe, 2022an jarduera gehien garatu duen bigarren nazioartekotze-ardatza da.

### 6. TAULA. 2.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2022. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2022	2. ardatzaren gaineko %a	2022ko guztizkoaren gaineko %a
<b>2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea</b>	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	128	% 40,76	% 13,17
	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	97	% 30,89	% 9,98
	2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	89	% 28,34	% 9,16
<b>GUZTIRA</b>		314	% 100,00	% 32,30

#### 2.1.HE. HARREMAN INSTITUZIONALAK INDARTZEA ETA NAZIOARTEKO BAZKIDE ETA ALIANTZEKIN EGITEN DEN LANA SAKONTZEA

**2.1.HE. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea** helburuarekin lotzen dira jarduera horien **% 40,79**. Jarduera horiek 2022an garatutako jarduera guztien % 13,17 dira.

2022an **12 esparru tematikotan** sailkatutako **128 jarduera** garatu ziren. **Lehendakaritzaren Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritzak** garatu ditu erregistratutako gertakarien **% 75**.

Lehendakariaren eta 60 herrialdeetako baino gehiagotako enbaxadoreen arteko topaketak areagotu dira, baita lehendakariaren eta Latinoamerikako zenbait herrialdeetako ekonomia, industria, turismo eta garraioko ministroen arteko topaketak eta herrialde horietako zenbait eskualdeetako ordezkarietzekin egindako topaketak ere.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen da lehendakariak Ajuria Enean Nicolas Schmit Enplegu eta Gizarte Gaietako Europako komisarioarekin egindako bilera. Bilera horretan, aztergai izan ziren Europako Itun Soziala, Euskadiren COFOErako ekarpena, kooperatibismoa edo lanbide-kualifikazioen aldeko ituna.

2022ko azaroaren 11n sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Santiago Eskualde Metropolitarrako Gobernuaren arteko Elkar Ulertzeko Memoranduma. Horren bidez, Euskadiko bazkide estrategikoen sarean sartu zen eskualde hori ere bai. Ekitaldian izan ziren Iñigo Urkullu lehendakaria eta Claudio Orrego Eskualde Metropolitarrako gobernadorea.

Garrantzitsua da, halaber, Japoniako Mie prefekturako gobernuaren ordezkaritza bertan bisitan izatea —governadorearen bisita prestatze aldera—, edo Berrikuntza eta Garapen Ekonomikoko Idazkaritzaren bisita eta Chihuahua Estatuko Berrikuntza eta Lehiakortasun Institutuko zuzendariak Euskadira egindako bisita.

Era berean, aipagarriak dira lehendakariak Parisen izandako topaketak, Korsikara egindako bisita ofiziala, eta ehundaka harreman instituzionalen inguruko jarduera handia eta emankorra.

## 2.2.EH. GURE EHUN SOZIOEKONOMIKOARI BERE PROIEKTUAK NAZIOARTEAN GAUZATZEN LAGUNTZEA

Helburu estrategiko honek 2.A ardatzean erregistratutako jardueren % **30,89** hartzen ditu, hau da, 2022an garatutako jardueren % 9,98.

2022an **9 esparru tematikotan** sailkatutako **97 jarduera** garatu ziren. Batez ere **Enpresen Nazioartekotzea, Kanpo Harremanak** eta **Kultura** esparruak nabarmentzen dira. 3 esparru tematiko horietan metatzen dira 2.2.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **65** (erregistratutako 97 jardueretako 63).

Basque Trade and Investment erakundeak 38 ekitaldi egin ditu 2022an, eta horietan Euskal Autonomia Erkidegoko 400 enpresak baino gehiagok hartu dute parte. Ekitaldi horietan enpresentzako negozio-aukerak erakartzeari eta identifikatzeari jarri zaio arreta.

Kanpo Harremanetarako jarduerak babes instituzionala jasotzen dute euskal erakunde eta instituzio publikoei laguntzeko proiektuetan, hala nola, Etxepare Institutuari laguntzea Flandriako ekintzetan eta ekimenetan —Euskadi-Flandria lankidetzaren barruan—, Brest-en (Frantzia) egindako Ozeanoen gailurrera bertaratzean, EUROHIRIAREN inguruko jarduerak egitean, bileretan parte hartzean eta udako ikastaroetarako Europako Batzordeko txostengileak bilatzean. Horrenbestez, aniztasun handiko jarduerak egin dira, gure ehun sozioekonomikoaren nazioarteko proiektuak babeste aldera.

## 2.3.HE. EZAGUTZA ETA GAITASUNAK ERAKARTZEN LAGUNTZEA, TRANTSIZIOEI ERANTZUTEKO (TEKNOLOGIKO-DIGITALA ETA BERDEA)

**2.3.HE. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)** helburu estrategikoan biltzen dira 2.A ardatzean garatutako jardueren % **28,34**, hau da, zehaztutako lau nazioartekotze-ardatzen inguruan 2022an garatutako jarduera guztien % 9,16.

2022an **11 esparru tematikotan** sailkatutako **89 jarduera** garatu ziren. Honako esparru hauek nabarmentzen dira: **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; Enpresen Nazioartekotzea; Unibertsitateak eta Ikerketa;** eta **Lanbide Heziketa**. 4 esparru tematiko horietan metatzen dira 2.3.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **73,0** (erregistratutako 89 jardueretako 65).

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** esparruko jarduerak zenbait herrialdetan garatzen dira, European Digital Innovation Hubs Network erakundeko bileretan, **EIT Manufacturing**-en bileretan, WORLD MANUFACTURING FOUNDATION erakundearen, Vanguard Initiative ekimenean eta hidrogenoari buruzko proiektu pilotuetan.

**Enpresen Nazioartekotzea** esparruaren barruan, talentua erakartzeko topaketak antolatzen dira Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden pertsonekin edo ikasle-ohiekin; atzerriko inbertsore potentzialentzako jardunaldiak ere antolatzen dira.

**Unibertsitate eta Ikerketa** esparruan, **2022ko** programak erregistratzen dira, hala nola Ikerbasque Research Professor, Research Associate eta Research Fellow programak, ikerketa-talentua erakartzeko programak —programa horien bidez, nazioartean esperientzia duten zenbait herrialdetako ikertzaileak kontratatzen dira, Euskadiko unibertsitateetan eta I+Gko zentroetan sar daitezen—, doktoratu aurreko egonaldi laburren programa (Egonlabur), ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa aplikatzen ez den zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak, eta ikertzaile doktoreen mugikortasun-programa (Ikermugikortasuna).

**Lanbide Heziketa** esparruan **10 jarduera** eta zenbait herrialderekin elkarlanean jarduteko proiektuak biltzen dira, baita lanbide-heziketari buruzko Europako eta Munduko biltzarretan parte hartzea ere.

## 2021-2022 BIURTEKOKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021-2022 aldian erregistratutako 1.914 jardueretatik, **616 jarduera** (% 32,18) **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** nazioartekotze-ardatzean biltzen dira. 2021-2022 aldian jarduera gehien garatu duen bigarren nazioartekotze-ardatza da.

616 jarduera horien % 49,03 garatu ziren 2021. urtean, eta gainerako % 50,97a 2022. urtean. Jarduera-mailari dagokionez, bi urte horien artean ez da inolako aldaketa aipagarririk hautematen, nahiz eta pixka bat handiagoa izan den 2022an (+ % 3,97).

Garatutako jardueren tipologiari dagokionez, 2021-2022 aldian **2.1.HE. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea** helburuak izan du hazkunderik handiena (+% 17,43). **Lehendakaritzaren Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritzak** egindako lana areagotu egin da, eta 2022an erregistratutako ekitaldi guztien ia % 75 garatu ditu, eta 2021ean, berriz, ekitaldi guztien % 52,3.

### 7. TAULA. 2.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021-2022 ALDIA (KOP.)

Ardatza	Helburua	2021	2022	2021-2022
<b>2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea</b>	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	109	128	237
	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzen laguntzea	102	97	199
	2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	91	89	180
<b>GUZTIRA</b>		302	314	616

# 2.3.

## 3. ardatza. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea

Eusko Jaurlaritzak Europarekin duen konpromisoari eusten dio, eta, ikuspegi proaktibotik eta erantzunkidetasunetik, Europar Batasunaren gobernantzan duen parte-hartzea handitu nahi du, Europako proiektuaren etorkizunerako bereziki kritikoa den egungoaren gisako une batean. Eskualdeen konpromisoa eta ekarpena, eta, zehazki, Europar Batasunaren barruan botere legegilea duten eskualdeena, ezinbestekoa da Europako herrien artean gero eta lotura sendoagoa eta konprometitua goa lortzeko bidean.

**Hirugarren ardatz honek eta bere hiru helburu estrategikoez** islatzen dute euskal gizarteak Europaren eraikuntzarekin duen konpromisoa eta borondatea. (Ikusi txostena; **Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Europar Batasunari buruzko pertzepzioak eta jarrerak**, [www.euskadi.eus/estudios-sociologicos](http://www.euskadi.eus/estudios-sociologicos)).

Euskal eragileek **Europar Batasuneko** funtsezko proiektu eta programetan parte har dezaten bultzatzeak, batez ere trantsizio hirukoitzarekin eta COVID-19aren ondoko leheneratzearekin lotutako proiektu eta programetan, eskatzen du gure erakundeek eta eragileek Europan proaktibitatez jardutea, finantzaketa eskuratzegatik ez ezik, berrikuntza eta ezagutzaren nodo nagusiekin lotura izateagatik ere bai.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak Euroeskualdearen eremua finkatzeko lan egiten du, mugaz gaindiko gobernantza ireki eta parte-hartzailea bultzatzearen bidez eta 2021-2027 Euroeskualdearen Plan Estrategiko berria zabaltzearen bidez.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean erregistratutako 942 jardueretatik **380 jarduera** (% 40,34) sartzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** nazioartekotze-ardatzaren barruan. 2021ean jarduera gehien garatu duen nazioartekotze-ardatza da.

8. TAULA. 3.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2021	3. ardatzaren gaineko %a	2021eko guztizkoaren gaineko %a
<b>3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea</b>	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	61	% 16,05	% 6,48
	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	257	% 67,63	% 27,28
	3. 3. Euroeskualdea sendotzea	62	% 16,32	% 6,58
<b>GUZTIRA</b>		380	% 100,00	% 40,34

### 3.1.HE. EUOPAR BATASUNAREN POLITIKEN KONFIGURAZIOAN PARTE HARTZEA

**3.1.HE. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburu estrategikoak hartzen du 3.A ardatzean erregistratutako jardueren % 16,05, hau da, 2021. urtean garatutako jarduera guztien % 6,48.

Eusko Jaurlaritzak ere europar proiektuaren partaide izan nahi du eta Europak aurrean dituen erronka erkideei erantzun nahi die. Hala, Euskadik eskumena duen esparru eta gaitan, Europar Batasuneko politika publikoen konfigurazioan lagunduko duten ekarpenak egitea eta iritzia ematea bultzatzen da. Adibidez, Europako Gizarte Zutabearen zehaztapenari, Europako Migrazio Agendari edo Europar Batasunaren Autonomia Estrategikoaren inguruko proposamenari buruzko eztabaidak pizten du interesa.

Esparru instituzionalean, Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan sustatzen ditu legegintza-ahalmena duten eskualde konstituzionalen eskariak. Ezaugarri horiek dituzten 17 eskualde daude Europar Batasunaren barruan. Horretarako, eskualde horiek sustatutako espazioetan eta sareetan parte hartzen du, arkitektura instituzionalean eragiteko asmoz eta Europar Batasunaren maila anitzeko gobernantzaren alde egiteko asmoz.

RLEG Sareko kide proaktiboa eta liderra da, eta parte hartuko du, halaber, Eskualdeetako Lantaldeak aldi baterako sustatzen dituen proiektuetan eta Europako etorkizuneko politikan eragina duten beste proiektu batzuetan.

Europar Batasuneko organo eta erakundeetan parte hartzen eta iritzia ematen jarraitzen da, osoko bilkuren bidez eta kasuan kasuko batzorde eta lantaldeen bidez, Euskadik erabakiak hartzeko prozesuetan duen esperientzia eta egiten jakitea eskaintze aldera.

Europako politika eta programen diseinuan eragina duten ekimenetan parte hartzera begira, Estatuko erakundeekin elkarlanean jarduten da eskura dauden bitartekoen bidez, zehazki Euskadi/Estatua bitariko batzordearen bidez eta Europar Batasunaren itunetan aurreikusitako bitartekoen bidez.

3.1.HE helburu estrategikoan, 2021ean, **61 jarduera** garatu ziren **12 esparru tematikotan** sailkatuta. Nabarmentzen dira **Kanpo Harremanak** eta **Osasuna** esparruak. Bi esparru tematiko horietan metatzen dira 3.1.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **73,8** (erregistratutako 61 jardueretako 45).

Helburu horretan oinarrituta zabaldu da nazioartean euskal gizarteak Europako proiektuarekin duen konpromisoa, itunak eta lankidetzak garatzearen bidetik eta Eskualdeetako Lantaldearen osoko bilkuretan parte hartzearen bidetik. Nabarmentzekoak dira Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko goi-kargudunekin egindako lan-bilerak; esate baterako, Angel Boixearu Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkaritzako ordezkariarekin egindako bilera eta Eusko Jaurlaritzako sailburuek Europar Batasuneko erakundeen aurrean egindako aurkezpenak —Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak Europako Ministroen Kontseiluan egindako esku-hartzea, autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen ordezkartzan—.

Europako sare edo programen (European Regions Research and Innovation Network, adibidez) gobernantzan eragina izateko jardunak jarri dira abian edo abian ziren jardunei jarraipena eman zaie, Gobernuaren ekarpen politikoarekin.

Europako finantza-tresnei eta programei buruzko hainbat jardunaldi eta informazio-txosten antolatuta ziren, euskal herritarrei aurkezte aldera.

**Osasunaren** arloan, Maroš Šefčovič Europako Batzordeko presidenteorde eta Erakunde Harremanetako eta Prospektibako arduraduna Bilbora etorri zen 2021ean, zientziaren eta berrikuntzaren

etorkizunari buruz mintzatzera. Bilbon izan zen aldian, presidenteordeak Neurozientziaren Achucarro ikerketa-zentroa eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia (OSHA) bisitatu zituen. Gainera, lehendakariarekin ere lan-bilera egin zuen. Lankidetzak horrek, ondoren, zenbait proiektu kontzeptualizatzea erraztu zuen.

Aipatzekoa da andrologiaren arloko ikerketan, hezkuntzan eta kontzientzia publikoan laguntzeko helburua duen ANDRONET lankidetzak-sarearen garapena, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroaren eta Biogurutzeta Bizkaia Ollren parte-hartzearekin.

### 3.2.HE. EUSKAL ERAGILEAK EUROPAR BATASUNAREN FUNTSEZKO EKIMENETAN GUZTIZ INTEGRATZEAREN ALDE EGITEA

**3.2.HE. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea** helburuarekin lotzen dira jarduera horien % **67,63**. Jarduera horiek 2021ean garatutako jarduera guztien % 27,28 dira.

Europar Batasunean euskal parte-hartzea indartu izana modu zabalean interpretatu behar da. Erakundeak erabakitze-prozesuetan parte hartzearekin batera, 2025 Estrategiaren helburua da euskal eragile publiko eta pribatuak Europar Batasuneko agendako ekimen eta programa nagusietan egotea.

Europako finantzaketa-politikak eta -programak Euskadin hedatzeko ekintzak garatzen dira, Europako funtsak jaso ditzaketan euskal eragileen horizontea zabal dadin.

Hauek dira lehentasunak: ikerketaren eta garapenaren esparruko Horizonte Europa Programa, Europa kultural eta sortzailearekin lotzen diren programak, Europako unibertsitateen ekimena, Europako gaitasunen agenda, Europako garraio-sarearen hedapena, eta ingurumenaren eta energiaren arloko eraldaketekin, eraldaketa teknologiko eta digitalekin eta eraldaketa soziosanitarioarekin zerikusia dutenak.

Euskadik parte-hartze proaktiboa eta propositiboa izan du mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak-sareetan, batik bat Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako Arku Atlantikoko Batzordean, Abangoardiako Ekimenean eta Pirinioetako Lan Elkartearen, bere Piriniar Estrategian eta POCTEFA 2021-2027 programa eragilean oinarrituta. Azken parte-hartze hori eztabaidaezina eta emankorra da, Euskadi baita 2021eko abenduaz geroztik **Pirinioetako Lan Elkartearen** buru eta lehendakaria presidentea.

2021ean **20 esparru tematikotan** sailkatutako **257 jarduera** garatu ziren. Helburu estrategiko horretan nagusi dira **Kanpo Harremanak 113 jarduerarekin, eta ondoren datoz Lanbide Heziketa (19 jarduerarekin), Unibertsitateak eta Ikerketa (19 jarduerarekin) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza**. Lau esparru tematiko horietan metatzen dira 3.2.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **65** (erregistratutako 257 jardueretako 167).

**Kanpo Harremanak** esparruak koordinatzen du euskal gizarteko eta ekonomiako eragileak Europar Batasunaren lanean erabat sartzea. Horretarako, itunak eta lankidetzak garatzen dira eta orotariko bilerak, sareak eta abar antolatzen dira eta horietan parte hartzen da. Hauek dira, besteak beste: Vanguard Initiative ekimenaren urteko bilera politikoan parte hartzea; ENCR (European Network of Cancer Registry) sarean parte hartzea; EQUINET Berritasunerako Erakundearen Europako Sareak antolatutako "Promoting Equality Mainstreaming in Policy Making" konferentzian parte hartzea; eta REPER erakundearekin biltzea.

**Lanbide Heziketa** esparruan aipamen berezia merezi dute CoVE CoP bilerek —lanbide-heziketako Europako bikaintasun-proiektuen koordinatzaile guztiek osatutako lantaldea— eta EARLALL (European Association of Regional & Local Authorities for Lifelong Learning) elkarteko bilerek.



**Unibertsitate eta Ikerketa** esparruan nabarmentzen dira Europako Unibertsitatearen proiektua; Erasmus Mundus Applied Data Science masterra; Erasmus+EuroSTEAM programa; ESS Bilbao Jarrapena, Horizonte Europa Programa eta Europako I+G+Bko euskal estrategia.

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** esparruan, Nabarmendu behar da parte hartu izana DIGITAL EUROPE PROGRAMean; EEN Aeronautika eta Espazioan; EEN Energia Adimentsuan; BDIH - ARTES 4.0an, Lombardia (Italia); ADMA Energy-an; VANGUARD INITIATIVE-European Partnerships-ean; EEN-TGCLusters-ean; eta RIS3-S3 Plataforman.

Helburu horretan, sartzan dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak "Europar Batasuneko legeria farmazeutiko orokorraren berrikusketari" buruzko kontsulta publikoan duen posizionamendua, Europar Batasunean dugun erabateko parte-hartzea ikusarazteko eta zabaltzeko.

### 3.3.HE. EUROESKUALDEA SENDOTZEA

**3.3.HE. Euroeskualdea sendotzea** helburu estrategikoak 3.A ardatzean garatutako jardueren % 16,32 biltzen ditu, **EBC 2025** estrategiaren lau nazioartekotze-ardatzetan garatutako jarduera guztien % 6,6 hain zuzen.

Akitania Berria – Euskadi - Nafarroa Euroeskualdea mugaz gaindiko eta euroeskualde-mailako garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzeaz arduratzen den espazio erkidea da. Azken urteotan, Euroeskualdeak dimentsioa eta eragin-ahalmena handitu du eta lehentasunekotzat jotzen da proiektu hau finkatzeko bidean aurrera egitea.

2021-2027 Euroeskualdearen Plan Estrategikoak 5 lan-ardatz ditu: Euroeskualdeko herritarrak; garapen adimentsua, lehiakorra, inklusiboa eta jasangarria; mugaz gaindiko gobernantza; Euroeskualdearen kudeaketa aurreratua; eta lurraldearen jasangarritasuna eta kohesioa.

Bestalde, Communauté d'Agglomération du Pays Basque (Iparraldea) erakundearekin 2019an sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, areagotu egin da hizkuntza-politikaren, nekazaritzaren, kulturaren eta mugikortasunaren arloan finkatutako lankidetzaren.

2021ean **12 esparru tematikotan** sailkatutako **62 jarduera** garatu ziren. **Azpiegiturak eta Garraioa, Kanpo Harremanak eta Unibertsitateak eta Ikerketa** esparruetan biltzen dira 3.3.HE helburuan garatutako jarduera guztien % **71** (erregistratutako 62 jardueretatik 44).

Helburu estrategiko horretan nabarmentzen da **Azpiegitura eta Garraioa** esparruak Arku Atlantikoaren osoko bilkuretan parte hartzea, baita TEN-T araudiari buruzko lantalde espezifikotan, TRANSFERENMUGARREKIN proiektuan —Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroak osatutako Euroeskualdeko mugaz gaindiko garraio intermodalaren eskaintza finkatzeko erronkari erantzuten diona— eta Hendaian egindako Connecting Europe Express Train proiektuaren inaugurazio-ekitaldian ere (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburua eta haren ekipoa bertaratu ziren).

**Kanpo Harremanak** esparruak koordinatzen eta prestatzen ditu CRPM Arku Atlantikoko Batzordearen bilera guztiak, eta CRPMren Batzarrean, Arku Atlantikoko Batzordearen Batzarrean eta zenbait lantaldetan parte hartzen du, hala nola Garraioak, Arrantza, Itsas Energiak, eta abar. Bestalde, side events ekitaldiak antolatzen ditu Energiaren Euskal Erakundearekin eta Arku Atlantikorekin.

2021ean, nabarmentzen da DG MOVEren Korridore Atlantikoko 18. Foroan, Akitania Berria / Euskadi / Nafarroa Euroeskualdearen Batzar Nagusietan eta Pirinioetako Lan Elkartearen Batzorde Betearazlean parte-hartzea, eta Eusko Jaurlaritzak COFOEri egindako ekarpena: "Mugaz gaindiko lankidetzaren Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzian" mahai-ingurua.

Garrantzi berezia du Arku Atlantikoko Batzordearen Gidaritza Politikoko Taldearen (Political Steering Group) bilerak, makroeskualdeko estrategia jarri baita abian Eusko Jaurlaritzaren presidentziapean.



**Unibertsitateak eta Ikerketa** esparruan, hiru proiektu nabarmendu daitezke: Euskampus Bordele Urte Nagusia programa; Ocean i3 - Blue skills proiektua, itsasertzean ekonomia urdina garatzeko; eta Euskadi - Akitania Berria Mugaz Gaindiko Laborategi Kooperatiboen LRed garapena Euskampus, UPV/EHU eta Bordeleko Unibertsitatearen artean.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean erregistratutako 972 jardueretatik, **351 jarduera** (% 36,11) sartzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** nazioartekotze-ardatzaren barruan. 2022an jarduera gehien garatu duen nazioartekotze-ardatza da.

9. TAULA. 3.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2022. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2022	3. ardatzaren gaineko %a	2022ko guztizkoaren gaineko %a
<b>3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea</b>	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	139	% 39,60	% 14,30
	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	167	% 47,58	% 17,18
	3. 3. Euroeskualdea sendotzea	45	% 12,82	% 4,63
<b>GUZTIRA</b>		351	% 100,00	% 36,11

**3.1.HE. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburu estrategikoak hartzen du 3.A ardatzean erregistratutako jardueren % 39,60, hau da, 2022. urtean garatutako jarduera guztien % 14,30.

2022an **16 esparru tematikotan** sailkatutako **139 jarduera** garatu ziren. **Kanpo Harremanak** eta **Osasuna** esparruetan biltzen dira 3.1.HE helburuan garatutako jarduera guztien % **65** (erregistratutako 139 jardueretatik 90).

Aipamen berezia merezi dute: PRI (Eskualdeen arteko Berrikuntzako Lankidetzak) erakundearen laugarren osoko bilkuran parte hartzeak; ERIC ESS (Europako Espalazio Iturria) erakundearen Kontseiluaren bilera parte hartzeak; eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (2020-2024) tarteko ebaluazioari buruzko Europako Batzordearen kontsultari Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako ekarpenak.

Era berean, nabarmentzekoa da 2023an Bilbon egingo zen RLEG Initiative-High Level bilera presatatu izana. RLEG legegintza-ahalmena duten 17 eskualde eta autonomietako gobernuek osatutako sarea da —horietako askok Estatu kideen barruko herrialdeak edo nazioak ordezkatzeko dituzte—.

Osasunaren esparruan, nabarmentzekoa da i-HTS/EuroScan sarearen barne-bilera, bizi-zikloan osasun-teknologiak identifikatu eta ebaluatzekoa. Bilera horretan parte hartu dute Taiwan, Singapur, Malaysia, Hego Korea, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Australia, Brasil, Italia, Norvegia

eta Galiziako agentziak, Andaluziako Osasun Ikerketako Institutuak, Carlos III.a Unibertsitateak eta Euskadik.

Era berean, garrantzitsua da AISym4MED proiektuari hasiera eman izana. Proiektu hori Europar Batasunaren HorizonEurope programak finantzatzen du, Osakidetzaren eta Biogurutzeta Bizkaia Ollren parte-hartzearekin. Proiektuaren helburua da gaitasun medikoa izango duen adimen artifizialerako datu sintetiko eta eskalagarrien plataforma garatzea. Europako zenbait eskualdek hartzen dute parte proiektu horretan.

### 3.2.HE. EUSKAL ERAGILEAK EUROPAR BATASUNAREN FUNTSEZKO EKIMENETAN GUZTIZ INTEGRATZEAREN ALDE EGITEA

Jarduera horien % **47,58** lotzen dira **3.2.HE** helburuarekin. Jarduera horiek 2022an garatutako jarduera guztien % 17,18 dira.

2022an **16 esparru tematikotan** sailkatutako **167 jarduera** garatu ziren. **Kanpo Harremanak, Unibertsitateak eta Ikerketa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** eta **Azpiegiturak eta Garraioa** esparruak nabarmentzen dira. 4 esparru tematiko horietan metatzen dira 3.2.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **68** (erregistratutako 167 jardueretako 113).

Oso adierazgarriak dira: **Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanen** esparrua gonbidatu izana 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko Europako Borondatzeko Lehen Txostenean parte hartzera; VI. Interregional Funding Mechanism erakundearen Steering Committeearen bilera, eskualdeen arteko finantzaketa-mekanismo baten balizko agertokiei buruz eztabaidatzeko; Vanguard Initiative Sareko High level directors-etan parte hartzea; Euskadik Euromontana 2022 sareko lehendakaritza izatea; ERIAFF 2022 sareko gobernantzan parte hartzea; eta Europako programe-tan (ERASMUS, Horizon Europe, Creative Europe) kultura- eta sorkuntza-sektorearen eta hezkuntza-sektorearen parte-hartzea areagotzen eta eragiten jarraitzeko aholkularitza.

**Unibertsitateak eta Ikerketa** esparru tematikoan Quantum Euskadi proiektua jarri zen abian.

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** esparruan nabarmentzen da EEN Basque Enterprise Europe Network sarearen urteko batzarrean parte hartzea, sare horren kide den heinean, eta haren zerbitzuak portfolioan integratzea eta enpresei laguntzea. Beste lantalde batzuk ere erantsi dira, hala nola BioChemtech EEN, EEN jasangarritasuneko talde sektoriala.

**Azpiegiturak eta Garraioa** esparruak jarduera areagotu du CER (Community of European Railways) erakundeko bi lantaldetan parte hartzearekin, bai Steering group lantaldean, bai ibilgailuak baimentzeko lantaldean; eta UIC Trenbideetako Profesionalen Mundu Elkarteko lantaldeetan ere parte hartu du: CEMP bezeroaren esperientzia, tuneletako trenen gurutzaketa, GEOHSR tren-eragiketen analisi sozioekonomikoa.

### 3.3.HE. EUROESKUALDEA SENDOTZEA

Helburu estrategiko horrek 3.A ardatzean egindako jardueren % 12,82 hartzen du, hau da, jarduera guztien % 4,63, eta **11 esparru tematikotan** sailkatutako **45 jarduera** garatu ditu. Nabarmentzen dira, batik bat, **Kanpo Harremanak, Unibertsitateak eta Ikerketa** eta **Azpiegiturak eta Garraioa** esparruak. 3 esparru tematiko horietan metatzen dira 3.3.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % **62** (erregistratutako 45 jardueretako 28).

CRPMiko organismoetan, Arku Atlantikoko Batzordean, Akitania Berria / Euskadi / Nafarroa Euroeskualdean eta Pirinioetako Lan Elkarteko Batzorde Betearazlean ohikoak diren jardueraz gain, aipatzekoa da 2021-2027 aldirako Euroeskualdeko Unibertsitate Estrategiaren aurkezpena.

Kultura eta hezkuntzako esparruan, aipatzekoa da lehendakariak Donostiako Larrun Frantses-Euskaldun Eskola inauguratu izana, hain zuzen Haur Hezkuntzako ikasleak euskarari eta frantsesean murgiltzeko eredia eskaintzen duen Euskadiko mugaz gaindiko lehen ikastetxea. Ikastetxeak 2020-2021 aldian zabaldu zituen ateak, baina inaugurazio ofiziala atzeratu behar izan zuten, pandemiaren ondorioz.

Honako jarduera hauek nabarmendu behar dira: ozeanografia operazionalako sistemak hobetzeko Europako proiektuetan parte hartu izana, European Emergency Number Association (EENA) elkar-tearekin etengabe lankidetzan aritu izana, Eskualdeetako Lan Merkatuak Monitorizatzen Europako Batzordean (RLMM) parte hartu izana, eLankidetzak parte hartu izana Hezkuntza Globalaren Europako Biltzarrean, non Hezkuntza Globalaren Europako Sareak (Europar Batasuneko kideen ministerioek eta agentziek osatua) Hezkuntza Globalari buruzko Europako Adierazpena (2050) sinatu duen, Dublingo Adierazpena deiturikoa.

## 2021-2022 BIURTEKOKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021-2022 aldian erregistratutako 1.914 jardueretatik, **731 jarduera** (% 38,19) sartzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** nazioartekotze-ardatzaren barruan. **2021-2022 aldian** jarduera gehien garatu duen **nazioartekotze-ardatza** da.

731 jarduera horien % 51,98 garatu ziren 2021. urtean, eta % 48,02 garatu ziren 2022. urtean. Jarduera zertxobait jatsi da 2022. urtean (-% 8,26), 2021. urtearekin alderatuta.

Egindako jardueren tipologiari dagokionez, 2022an **3.1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburura zuzendutako jarduerak % 128 hazi dira.

**3.2 Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea** helburura zuzentzen diren jarduerak % 35 murriztu dira 2022an. Jarduera kopuruaren aldaketa hori ez da adierazgarria, 3.2 helburuko jarduera asko urteaniztunak baitira eta 2021. urtean erregistratu baitziren, **Europar Batasuneko 2021-2027 urte anitzeko finantza-esparruaren hasieran**.

### 10. TAULA. 3.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021-2022 ALDIA (KOP.)

Ardatza	Helburua	2021	2022	2021-2022
<b>3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea</b>	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	61	139	200
	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	257	167	424
	3. 3. Euroeskualdea sendotzea	62	45	107
<b>GUZTIRA</b>		380	351	731

# 2.4.

## 4A. ardatza. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea

Agenda globalaren erronken artean daude pobreziaren aurkako borroka, migrazio-mugimenduen kudeaketa, garapen jasangarriaren sustapena eta/edo pandemien kudeaketa; erronka horiek eragina dute euskal gizartearen eguneroko bizitzan. Desafio horien izaera transnazionala eta lurraldean duten inpaktua aztertu, kudeatu eta jorratu beharko dira, maila globalean zein tokikoan.

XII. Legealdiaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendarekiko eta haren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuekiko konpromisoa berriro zuen, baita zenbait gairen inguruko adostasun global nagusiak ere —giza eskubideen sustapena, klima-aldaketaren aurkako borroka, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, migrazio-mugimenduen kudeaketa edo hiri-agenda—.

Erronka horiek gaintzera badira, konpromiso politikoaz gain, lan handia egin beharko da gizartearen kontzientziazteko, pixkanaka jarri beharko dira abian agenda globalekin lotzen diren plan eta estrategia sektorial berriak, eta proiektu eta ekimen eraldatzaileak finantzatu beharko dira.

Bestalde, harreman estua izan beharko da nazioarteko erakunde nagusiekin, proposamen globalak atzeman ahal izan daitezkeen eta Euskadik horietan egiten duen ekarpena ikusaraz dadin.

2018an Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu ondoren —dokumentu horrek aurreko motibazioak biltzen ditu eta Gobernu Programak Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta haren xedekin duen lotura- eta ekarpen-maila islatzen du—, ardatz estrategiko horren jarduera handitu da, eta 336 jarduera izan ditu 2021-2022 aldian.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean erregistratutako 942 jardueretatik **146 jarduera** (% 15,50) **4.A. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** nazioartekotze-ardatzaren barruan sartzen dira. 2021ean jarduera gehien garatu duen hirugarren nazioartekotze-ardatza da.

11. TAULA. 4.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2021	4. ardatzaren gaineko %a	2021eko guztizkoaren gaineko %a
4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	86	% 58,90	% 9,13
	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea	60	% 41,10	% 6,37
<b>GUZTIRA</b>		146	% 100,00	% 15,50

#### 4.1.HE. EUSKADIRENTZAT GARRANTZITSUAK DIREN AGENDA GLOBALEI EKARPENA EGITEA EUSKAL POLITIKA PUBLIKOETATIK

Jarduera horien % 59k erantzuten diote **4.1.HE. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik** helburuari. Jarduera hori 2021ean garatutako jarduera guztien % 9,13 da.

- Euskadi Basque Country 2030 Agenda nahitaezko erreferentzia da, Eusko Jaurlaritzak garapen jasangarriaren erronkari egiten dion ekarpena barne hartzen baitu eta politika sektorialak katalizatzen baititu.
- Era berean, Hiri Agenda Berriarekin bat etortzeko bidean sakontzen jarraituko da, baita klima-eta ingurumen-konpromisoetan, pobreziaren aurkako borrokan, familia-nekazaritzaren sustapenean edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko bidean edo enpresa eta giza eskubideak binomioari heltzeko proposamen globaletan ere.
- Garapenerako lankidetzaren bidez, premian dauden herrialdeei laguntzen zaie pobreziaren aurkako borrokan eta giza eskubideen sustapenean; azken batean, Gobernuak eta bere sektore publikoak giza garapen jasangarria eskala globalean lortzeko konpromisoa hartzen dute.
- Horrekin batera, euskal gizarteak, oro har, parte har dezan eta bidezko ekosistema global jasangarria lortzeko funtsezko eragile gisa inplika dadin bultzatzen da.

2021ean ardatz estrategiko honetan sailkatutako **13 esparru tematikotan 86 jarduera** garatu ziren. **Garapenerako Lankidetzaren, Kanpo Harremanak eta Ingurumena** esparruetan biltzen dira 4.1.HE helburuan garatutako jardueren % 78 (erregistratutako 86 jardueretako 67).

**Garapenerako Lankidetzaren** esparruan, garapen-bidean dauden herrialdeetan garapen-proiektuak egiteko laguntzetarako eta premian dauden kolektiboentzako laguntzetarako deialdiak egiten dira. Nabarmendu behar dira honako hauei, besteak beste, ematen zaizkien zuzeneko dirulaguntzak: ANESVADi eta MU Enpresagintzari, Africa Basque Challenge programa gara dadin eta osasunerako giza eskubidearekin lotutako gizarte-ekintzailtzako ekimenak sendotu daitezen; SIC4CHANGE ekimenari eta Basamortuko Arrosa Ongintza Elkarteari, Mauritanian ama-haurren desnutrizioa murriztu dadin; eta UNICEFen Espainiako Batzordeari, Malawiko errefuxiatu-eremuetako Lehen Hezkuntzako eskoletan Interneterako konexioa izan dezaten.

Era berean, zuzeneko dirulaguntza eman zitzaion GAVI - Txertaketaren aldeko Mundu Ituna elkarteari, COVAX-AMC taldeko kideei COVIC-19rako txertoak eroste aldera.

Nabarmenezkoa da **lehendakariak** online parte hartu izana Seulen (Korear Errepublika), 2021eko abenduaren 15etik 17ra bitartean, formatu hibridoan egin zen **Gobernu Irekiaren Aldeko Aliantzako Munduko Goi-bileran**.

Gobernu Kontseiluak 2030 Agendarekiko lehentasunen euskal programa onartu zuen, baita erronka demografikorako euskal strategiaren lan-dokumentuak ere, Kanpo Harremanak koordinatuta.

**Ingurumena** esparruak CDPren Compact of States and Regions ekimenaren urteko txostena prestatu zuen, RegionsAdapt (Regions4) eta Under2 Coalition (The Climate Group) argitalpenetarako. Horrez gain, bere gain hartu zuen Regions4 erakundeko Presidentzia eta Idazkaritza Nagusia.

**Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak** esparruan garrantzi handikoa da Giza Eskubideen Defendatzaileak programa aipatzea —2021. urtean X. urteurrena ospatu zuen—.

## 4.2.HE. EUSKADI BASQUE COUNTRY NAZIOARTEKO ERAKUNDE NAGUSIEN ARTEAN POSIZIONATZEA.

**4.2.HE. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea** helburu estrategikoan biltzen dira A.4 ardatzean erregistratutako jardueren % 41,10, hau da, 2021. urtean garatutako jarduera guztien % 6,37.

Gaur egun, euskal gizarteak dituen erronka gehienak globalak dira, eta nazioarteko erakunde nagusien agendaren erdigunean daude. Nazioarteko erakunde nagusi horiekin zuzeneko elkarriketa lortzea da Euskadiko kanpo-harremanen helburu nagusia. Proposamen eta eztabaida globalen edukia xehetasunez ezagutu nahi da eta joerak eta ezagutza atzemateko jardunbide onen nodoekin lotu nahi da.

Dinamika horrek berarekin ekarri ohi du gure politika publikoen hobekuntza eta antzeko erronkei ematen zaien erantzuna hobetzea. Hurbiltasun eta elkarreragin horrek, beraz, Gobernuak erronka global horiei erantzutera begira sustatzen eta inplementatzen dituen politikak eta ekimenak ikusaraztea eta haien balioa nabarmentzea ahalbidetu du. Era berean, Jaurlaritzak eztabaidetan eta proposamen globaletan eragina eta ahotsa izan nahi du.

Eusko Jaurlaritzak indartu egin du Euskadik Nazio Batuen Sistemari, Sistema Iberoamerikarrean eta Ekonomia Lankidetzari eta Garapenerako Antolakundean duen posizionamendua. Halaber, parte hartzen jarraitzen du 2030 Agendarako eta Garapen Jasangarrirako Helburuetarako Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan, Klima Aldaketari buruzko Aldeen Konferentzian (COP) edo Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordean (CSW), besteak beste. Sareei dagokienez, Regions4 eta ORU FOGAR sareak izango dira partaidetzarako lehentasuneko bitartekoak.

2021ean **14 esparru tematikotan** sailkatutako **60 jarduera** garatu ziren. **Kanpo Harremanak, Berdintasuna, Lana, Garapenerako Lankidetzari eta Gizarte-Politikak** esparruetan biltzen dira 4.2.HE helburuan garatutako jarduera guztien % **75** (erregistratutako 60 jardueretako 45).

Nabarmentzekoa da Arantza Tapia sailburuak parte hartu izana New Yorken egindako Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan. Sailburuak tokiko eta eskualdeko gobernuek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren inplementazioan betetzen duten zereginaz hitz egiteko aukera izan zuen, baita maila anitzeko gobernantzaren garrantziaz ere, batik bat Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko ahalegin bateratuan eta koordinatuan. Halaber, nabarmendu behar da "Local and Regional Governments at the Forefront of Women Empowerment" konferentzia birtuala, non Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak parte hartu zuen.

Horrez gain, aipamen berezia merezi du Gazako Zerrendan COVIDaren aurkako prebentzioa babesteko UNRWA erakundeari emandako zuzeneko dirulaguntzak. Bestalde, Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak osasun-lankidetzari buruzko lankidetzari hitzarmena sinatu zuten.

COVID-19ari aurre egiteko txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpenak ere islatu zuen Eusko Jaurlaritzak premia handiena dutenekin duen elkartasuna.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean erregistratutako 972 jardueretatik **190 jarduera** (% 19,55) **4.A. Erronka globalak gaitzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** nazioartekotze-ardatzaren barruan sartzen dira. 2021. urtean bezalaxe, 2022an jarduera gehien garatu duen hirugarren nazioartekotze-ardatza da.

## 12. TAULA. 4.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2022. URTEA (KOP. ETA %A)

Nazioartekotze-ardatza	Helburu estrategikoa	2022	4. ardatzaren gaineko %a	2022ko guztizkoaren gaineko %a
<b>4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea</b>	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	112	% 58,95	% 11,52
	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea	78	% 41,05	% 8,02
<b>GUZTIRA</b>		190	% 100,00	% 19,55

**4.1.HE. EUSKADIRENTZAT GARRANTZITSUAK DIREN AGENDA GLOBALEI EKARPENA EGITEA EUSKAL POLITIKA PUBLIKOETATIK**

Jarduera horien % 59 lotzen dira **4.1.HE. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik** helburuarekin. Jarduera horiek 2022an garatutako jarduera guztien % 11,52 dira.

2022an **16 esparru tematikotan** sailkatutako **112 jarduera** garatu ziren. Nabarmentzen dira, batik bat, **Garapenerako Lankidetzak, Kanpo Harremanak, Bizikidetzak eta Giza Eskubideak** eta **Berdintasuna**. Lau esparru tematiko horietan metatzen dira 4.1.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien % 78 (erregistratutako 112 jardueretako 87).

Egindako jarduera ugarien artean, nabarmentzekoa da **Euskadik Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Toki Idazkaritzaren egoitza hartzeko hautagaitza** aurkeztu izana. Proposamen hori bederatzi hilabete baino gehiagoko prozesu baten emaitza izan da, eta, lehendakaria buru zela, zuzenean parte hartu dute Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiak eta Gizarte Trantsizioaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak.

Esanguratsua da eLankidetzak – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak 2022ko urrian Ginea Bissaura egindako bidaia, zehazki Simão Mendes Ospitale Nazionalera. Helburua zen Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak, Osakidetzak - Euskal Osasun Zerbitzuak, eLankidetzak - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak, Aida - Laguntza, Trukea eta Garapena Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Osasun Publikoko Ministerioak (MINSAP) elkarlanean sustatzen, gauzatzen eta kudeatzen duten osasun-lankidetzako programa horren lehen eskuko jarraipena egitea. Ginea Bissau eta Euskadiren arteko Osasun Globalaren arloko elkarlanerako urte anitzeko lankidetzak-programak aurreikusten du osasunaren arloko profesional-talde batek Simão Mendes Ospitale Nazionalan —herrialde horretan erreferentziazkoa den ospitalea— jarraitutasunez lan egitea medikuntzaren, kirurgiaren eta amatasunaren arloetan. Era berean, diagnostikoko zerbitzuak (laborategia eta erradiologia) eta ospitale-kudeaketa indartu nahi dira.

**4.2.HE. EUSKADI BASQUE COUNTRY NAZIOARTEKO ERAKUNDE NAGUSIEN ARTEAN POSIZIONATZEA.**

**4.2.HE. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea** helburu estrategikoak hartzen ditu A.4 ardatzean erregistratutako jardueren % 41,05, hau da, 2022. urtean garatutako jarduera guztien % 8,02.



2022an **14 esparru tematikotan** sailkatutako **78 jarduera** garatu ziren. Nabarmentzen dira, batik bat, **Kanpo-harremanak, Lana, Garapenerako lankidetzak, Bizikidetzak eta giza eskubideak, Gobernu irekia** eta **Ingurumena**. Sei esparru tematiko horietan metatzen dira 4.2.HE helburu estrategikoan garatutako jarduera guztien **% 84,6** (erregistratutako 78 jardueretako 66).

Kanpo-harremanetan, ORU / FOGAR Sareak hainbat gairi buruz antolatutako jardunaldiak nabarmentzen dira: ORU / FOGAR Sareak antolatutako Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Egunaren inguruan EMAKUNDEk jardunbide onen hedapenean parte hartu zuen; Word Urban Forum-ek ORU / FOGAREkin batera antolatutako jardunaldia; Nazio Batuen 2022 ECOSOC Partnership Forum; The New Plastic Global Commitment-ekiko atxikipena, Nazio Batuekin batera; 2022 HLPF: Special Event - Fifth Local and Regional Governments Forum on the 2030 Agenda, lehendakariaren parte-hartzearekin.

Euskadira egindako bisitak: Munduko Bankuak antolatuta Indiako ordezkari batek Euskadira egindako bisita; Migrazioen Nazioarteko Erakundearen Espainiako misioko buruaren bisita; Iberoamerikako Estatu Erakundearekin bilera, Eusko Jaurlaritzari Eutopia programa aurkezteko; proiektuen eta jardueren aurrerapena SEIB - Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin.

Emakunderen eta Ameriketako Estatu Batuetako Euskadiren Ordezkaritzaren arteko baterako lana, Emakunderi laguntzeko New Yorken SNUrekin egin beharreko lanean eta NBE Emakumeak erakundearen CSW 66ren esparruan.

**Lan** esparruan nabarmentzen da Uruguairen etorkizunari buruzko elkarrizketen aurkezpena, "kooperatibismoa eta ekonomia sozialerako agertoki berriak", eta Saila ISO-WG5 eta ISO-WG3 multzoetan parte hartzea, Nazioarteko Normalizazio Erakundearen.

**Bizikidetzak eta Giza Eskubideak** esparruan, aipatzekoa da Gobernuak "Mediterraneo eta Itsasarte zeharkatzen duten pertsona migratzaileen bizitza arriskuan" egotearen gaineko kezka azaldu izana Ylva Johansson Europako Barne Komisarioari, eta Eusko Jaurlaritzak 200.000 euroko ekarpena egin izana Lesbosen errefuxiatu-esparruan elikagaiak bana daitezen.

**Ingurumena** esparruan, Rio 2030-Glocal Conference online konferentzian parte hartu zen eta jardunbide onen inguruko Climate Chance Summit Europe 2022 goi-bileran.

## 2021-2022 BIURTEKOKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021-2022 aldian erregistratutako 1.914 jardueretatik **336 jarduera** (% 17,55) **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** nazioartekotze-ardatzaren barruan sartzen dira. 2021-2022 aldian jarduera gehien garatu duen hirugarren nazioartekotze-ardatza da.

336 jarduera horien % 43,45 garatu ziren 2021ean, eta gainerako % 56,55a 2022an. Jarduera-mailak **nabarmen egin du gora 2022an** (+% 30,1), 2021. urtekoarekin alderatuta (2022an, munduko populazioaren txertaketa masiboaren ondorioz, herrialde gehienek mugikortasun-murrizketak kendu zituzten).

Jarduera kopuruaren hazkundera antzekoa izan da laugarren nazioartekotze-ardatz hau osatzen duten bi helburuen artean, bietan % 30 inguru.



13. TAULA. 4.A ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERAKO JARDUERAK, 2021-2022 ALDIA (KOP.)

<b>Ardatza</b>	<b>Helburua</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2021-2022</b>
<b>4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea</b>	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	86	112	198
	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea	60	78	138
<b>GUZTIRA</b>		146	190	336



JARDUERAREN  
ANALISIA  
ESPARRU  
TEMATIKOEN  
ARABERA



Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak nazioarteko jarduera areagotu eta sakondu dutela ikusirik, Euskadi Basque Country 2025-EBC nazioartekotzeko esparru-estrategiak **nazioarteko jardueraren 7 esparru hartzen ditu aintzat, nazioartekotzearen helburu eta ardatz erkideak hedatu diren 28 esparru tematikotan banatuta.**

#### 14. TAULA. ESPARRU TEMATIKOAK NAZIOARTEKO JARDUERAREN ESPARRUETAN MULTZOKATZEAREN LABURPEN-TAULA

I. Instituzionala Gobernantza	II. Ehun Ekonomikoa	III. Kultura, Kirola eta Hizkuntza Politika	IV. Ezagutza eta Berrikuntza Sistema	V. Jasangarri- tasuna eta Lurraldea	VI. Gizarte Zutabea	VII. Bizikidetzak
<ul style="list-style-type: none"> <li>· Kanpo Harremanak</li> <li>· Gobernantza Publikoa</li> <li>· Gobernu Irekia</li> <li>· Ogasuna eta Ekonomia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Enpresen Nazioartekotzea</li> <li>· Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura</li> <li>· Turismoa</li> <li>· Enplegua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Kultura</li> <li>· Kirola</li> <li>· Hizkuntza Politika</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hezkuntza</li> <li>· Lanbide Heziketa</li> <li>· Unibertsitateak</li> <li>· Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza</li> <li>· Zibersegurtasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Ingurumena</li> <li>· Azpiegitura eta Garraioa</li> <li>· Lurralde Politika</li> <li>· Etxebizitza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Gizarte Politikak</li> <li>· Lana</li> <li>· Garapenerako Lankidetzak</li> <li>· Osasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Segurtasuna</li> <li>· Justizia</li> <li>· Bizikidetzak, Aniztasuna eta Giza Eskubideak</li> <li>· Berdintasuna</li> </ul>

Estrategiak Eusko Jaurlaritzaren 28 esparru tematiko horien nazioarteko jarduketak biltzen ditu eta koherentzia ematen die, betiere Euskadi eragile global gisa posizionatzeko azken helburuarekin. Horretarako, Euskadik espazio propioa izango du Europako proiektuaren eraikuntzan; herrialde kohesionatu, erakargarri eta lehiakorra da, bere berezitasunagatik ezaguna, baita giza garapen jasangarriaren maila handiagatik, solidarioa eta munduari irekia izateagatik eta kanpoko euskal komunitateari oso modu estuan lotuta egoteagatik.

Ondoren, **labur-labur aztertzen dira esparru tematiko bakoitzean** nazioarteko ingurunean 2021. eta 2022. urteetan garatutako jarduerak, nazioartekotze-ardatzen arabera eta helburu estrategikoen arabera.

# 3.1.

## Esparru Instituzionala

### 3.1.1. Kanpo Harremanak

Kanpo Harremanak esparruak du Eusko Jaurlaritzaren jarduera instituzionalaren ardura. Bere gain hartzen du sailen arteko koordinazioa eta erakundeen arteko lankidetzak, **EBC 2025ean** islatzen diren helburuak lotzera begira.

## 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Kanpo Harremanak esparruak **318 jarduera** erregistratu zituen, **EBC 2025** estrategia-ren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % **34**.

318 jarduera horien % **51,6** biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzaren barruan. Ondoren datoz **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatza (% 24,8) eta, neurri txikiagoan, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** (% 11,0) eta **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** (% 9,8) ardatzak.

### 15. TAULA. KANPO HARREMANAK: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAI-NEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	35	% 11,0	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	16	% 5,0
			1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	3	% 0,9
			1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	16	% 5,0
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	79	% 24,8	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	57	% 17,9
			2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzaten laguntzea	14	% 4,4
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	8	% 2,5
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	164	% 51,6	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	33	% 10,4
			3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	113	% 35,5
			3. 3. Euroeskualdea sendotzea	18	% 5,7
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	40	% 12,6	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	21	% 6,6
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	19	% 6,0
GUZTIRA	318			318	

Helburu estrategikoei dagokienez, Kanpo Harremanak esparruak **2021ean** bultzatutako hirurehun eta hemezortzi (318) jardueretatik **berrehun eta hiru (203)**, hau da, jardueren **% 63,8, hiru helburu estrategikotan** ardatzu dira.

- **3.2.HE. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea** helburua nabarmentzen da. Helburu horrek **113 jarduera** biltzen ditu, hau da, 2021ean Kanpo Harremanak esparruan garatutako jardueren **% 35,5**, EBC 2025 estrategiaren barruan 2021ean garatutako jarduera guztien % 5,9.

Kanpo Harremanak esparruan, euskal gizarteak Europako proiektuarekin duen konpromisoa nazioartean zabal dadin sustatzen da, itunak eta lankidetzak garatzearen bidez eta askotariko bilerak, sareak eta abar antolatzearen eta horietan parte hartzearen bidez. Besteak beste: Vanguard Initiative ekimenaren urteko bilera politikoan parte hartzea; ENCR (European Network of Cancer Registry) sarean parte hartzea; EQUINET Berdintasunerako Erakundearen Europako Sareak antolatutako "Promoting Equality Mainstreaming in Policy Making" konferentzian parte hartzea; REPERekin bilera egitea, Euskadiko hidrogeno-ekimenak aurkezte aldera; CoVE CoP lanbide-heziketaren arloko bikaintasuneko Europako proiektuen koordinatzaile guztiek osatutako lantaldearen bilera parte hartzea; eta EARLALL, European Association of Regional & Local Authorities for Lifelong Learning-ean.

Helburu horretan nabarmentzen diren jardueren artean dago Eusko Jaurlaritzaren posizionamendua honako kontsulta publiko honetan: Europar Batasunaren farmazia-legeria orokorra berrikustea, Europar Batasunean gure erabateko parte-hartzea ikusarazteko eta zabaltzeko.

- Garatutako jarduera kopuruari erreparatuta bigarren helburu estrategikoa **2.1.HE. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea** helburua da. 2021ean, **Kanpo Harremanak** esparruan **57 jarduera** garatu ziren, garatutako jarduera guztien % 17,9 (EBC 2025 estrategiaren esparruan 2021ean garatutako jarduera guztien % 6,0).

Lehendakariak eta Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritzako goi-kargudunek lan-bilerak egin dituzte Euskadirentzat lehentasuna duten eskualde eta herrialde askotako enbaxadoreekin, kontsulekin eta nazioarteko erakunde garrantzitsu ugarietako goi-kargudunekin. Horien artean, 2021ean, nabarmentzen dira: lehendakariak eta Jan Jambon Flandriako presidentek sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; Bavariako Gobernuarekin sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; lehendakariak eta Mark Drakeford Galesko lehen ministroak egindako elkarrizketa; Korsikako Kolektibitatearekin sinatutako Lankidetzak Memoranduma; lehendakariak Paraguaiko Industria eta Merkataritza ministroarekin, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Lankidetzak ministroarekin eta abarrekin izandako topaketak; eta abar.

- Azkenik, **3.1.HE. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburu estrategikoa nabarmendu behar da. Helburu horrek **33 jarduera** biltzen ditu, Kanpo Harremanak esparruan 2021ean garatutako jarduera guztien % 10,4 (EBC 2025 estrategiaren esparruan 2021ean garatutako jarduera guztien % 3,5).
- Helburu horretan oinarrituta zabaldu da nazioartean euskal gizarteak Europako proiektuarekin duen konpromisoa, itunak eta lankidetzak garatzearen bidetik eta Eskualdeetako Lantaldearen osoko bilkuretan parte hartzearen bidetik. Nabarmentzekoak dira Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko goi-kargudunekin egindako lan-bilerak; esate baterako, Angel Boixearen Europar Batasuneko Kontseiluko Idazkaritzako ordezkariarekin egindako bilera eta Eusko Jaurlaritzako sailburuek Europar Batasuneko erakundearen aurrean egindako aurkezpenak —Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak Europako Ministroen Kontseiluan egindako esku-hartzea, autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen ordezkartzan—.

- Europako sare edo programen (European Regions Research and Innovation Network, adibidez) gobernantzan eragina izateko jardunak jarri dira abian edo abian ziren jardunei jarraipena eman zaie, Gobernuaren ekarpen politikoarekin.
- Europako finantza-tresnei eta programei buruzko hainbat jardunaldi eta informazio-txosten antolatu ziren, euskal herritarrei aurkezte aldera.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Kanpo Harremanak esparruak **343 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategia-ren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 35,28.

343 jarduera horien % **43,4** biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzaren barruan. Ondoren datoz **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea ardatza** (% 33,5) eta, neurri txikiagoan, **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** (% 9,8) eta **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** (% 8,7) ardatzak.

### 16. TAULA. KANPO HARREMANAK: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	30	% 8,7	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	10	% 2,9
			1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea		% 0,0
			1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	20	% 5,8
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	115	% 33,5	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	94	% 27,4
			2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	20	% 5,8
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	1	% 0,3
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	149	% 43,4	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	71	% 20,7
			3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	70	% 20,4
			3. 3. Euroeskualdea sendotzea	8	% 2,3

4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	49	% 9,8	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	21	% 6,1
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	28	% 8,2
GUZTIRA	343			343	

Helburu estrategikoei dagokienez, **Kanpo Harremanak** esparruak **2022an** bultzatutako hirurehun eta berrogeita hiru (343) jardueretatik **berrehun eta hogeita hamabost (235)**, hau da, jardueren **% 68,5, hiru helburu estrategikotan** ardatzu dira.

→ **2.1.HE. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea** helburua nabarmentzen da. 2022an, **Kanpo Harremanak** esparruan **94 jarduera** garatu ziren, garatutako jarduera guztien % 27,4 (EBC 2025 estrategiaren esparruan 2022an garatutako jardueren % 9,7).

Lehendakariak eta Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritzako goi-kargudunek lan-bilerak egin dituzte Euskadirentzat lehentasuna duten eskualde eta herrialde askotako enbaxadoreekin, kotsulekin eta nazioarteko erakunde garrantzitsu ugarietako goi-kargudunekin. Horien artean, 2021ean, nabarmentzen dira: lehendakariak eta Jan Jambon Flandriako presidenteak sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; Bavariako Gobernuarekin sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma; lehendakariak eta Mark Drakeford Galesko lehen ministroak egindako elkarrizketa; Korsikako Kolektibitatearekin sinatutako Lankidetzako Memoranduma; lehendakariak Paraguaiko Industria eta Merkataritza ministroarekin, Saharako Errepublikako Arabiar Demokratikoko Lankidetzako ministroarekin eta abarrekin izandako topaketak; eta abar.

Garrantzitsutzat jotzen da, halaber, Japoniako Mie prefekturako gobernuaren ordezkariak bertan bisitan izatea —governadorearen bisita prestatze aldera—, edo Berrikuntza eta Garapen Ekonomikoko Idazkariaren bisita eta Chihuahua Estatuko Berrikuntza eta Lehiakortasun Institutuko zuzendariak Euskadira egindako bisita.

→ Egindako jarduera kopuruari erreparatuta, bigarren helburu estrategikoa da **3.1.HE. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburua. Helburu horrek **71 jarduera** biltzen ditu, Kanpo Harremanak esparruan 2022an garatutako jarduera guztien % 20,7 (EBC 2025 estrategiaren esparruan 2022an garatutako jarduera guztien % 7,3).

Aipamen berezia merezi dute: PRI (Eskualdeen arteko Berrikuntzako Lankidetzak) erakundearen laugarren osoko bilkuran parte hartzeak; ERIC ESS (Europako Espalazio Iturria) erakundearen Kontseiluaren bileran parte hartzeak; Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (2020–2024) tarteko ebaluazioari buruzko Europako Batzordearen kontsultari Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako ekarpenak.

Era berean, nabarmentzekoa da 2023an Bilbon egingo zen RLEG Initiative-High Level bilera prestatu izana. RLEG legegintza-ahalmena duten 17 eskualde eta autonomietako gobernuak osatutako sarea da —horietako askok Estatu kideen barruko herrialdeak edo nazioak ordezkatzeko dituzte—.

→ Azkenik, **3.2.HE. Euskal eragileak EBren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea** helburua aipatu behar da. Helburu horrek **70 jarduera** biltzen ditu, hau da, 2022an Kanpo Harremanak esparruan garatutako jardueren **% 20,4**, EBC 2025 estrategiaren barruan 2022an garatutako jarduera guztien % 7,2.



Nabarmentzekoa da Eusko Jurlaritzak Garapen Jasangarrirako Helburuen Europako Lehen Borondatezko Txostenean parte hartzeko jasotako gonbita, baita Eusko Jurlaritzak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren inguruan egindako ekintzen eta ekimenen bidez hartutako konpromisoa eta etengabeko lana ere.

Garrantzi handia du, besteak beste, Eusko Jurlaritzako Hezkuntza Saila Konpetentziatarako Europako Itunari atxikitzeak (4Skills Ituna), Arku Atlantikoko Hub tematikoak antolatzeak, edo Vanguard Initiative ekimenaren gobernantzan parte hartzeak (Board-en eta Ministroen Batzar Orokorren aldian behingo bilerak eta zuzendarien eta ministroen urteko bilerak).

## 3.1.2. Gobernantza Publikoa

Herrialde baten gobernantzaren eta administrazio publikoaren kalitatea funtsezko faktorea da herrialde horren errendimendu ekonomikorako eta herritarren ongizaterako.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021ean, Gobernantza Publikoa esparruak **3 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,3.

3 jarduera horien % **100** ardatz honen barruan daude: **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea.**

**Bi jarduera 4.2.HE Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea** helburu estrategikoarekin lotzen dira, UN Public Service Awards sarietarako hautagaitza aurkeztea eta Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiaren (SEGIB) ordezkartza batekin elkartzea, gobernantza publikoaren arloko berrikuntzari buruzko esperientziak partekatze aldera. Hirugarren **jarduera** (4.1.HE) zuzentzen da gobernu irekiaren eta nazioarteko aitortpenaren estrategia sustatzera. Nabarmentzekoa da erreferentziazko nazioarteko erakundearekin, Gobernu Irekiaren Aldeko Aliantzarekin (OGP), elkarlanean aritu izana, betiere gobernuak irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorrakoak izateko mekanismoak garatu eta ebalua daitezzen. Euskadiko OGParen 2021-2024 aldirako ekintza-plana prestatu da.

#### 17. TAULA. GOBERNANTZA PUBLIKOA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	3	% 100,0	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	1	% 33,3
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	2	% 66,7
GUZTIRA	3			3	

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022an, Gobernantza Publikoa esparruak **7 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,7. Beraz, 2021ean baino lau jarduera gehiago dira.

2022ko 7 jarduera horien % **71,4** biltzen dira **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean eta % **28,6** biltzen dira **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatzean.

**1.1.HE. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburu estrategikoaren esparruan, nabarmentzen da Ardatz 2030 Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Planaren aurkezpen publikoa, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko Ivan Stolaren partaidetzarekin. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak deszentralizazio-prozesuari buruzko Euskadiren esperientziaren berri eman zion Txileko Gobernuari, World Creativity & Innovation Week ekitaldiaren barruan.

### 18. TAULA. GOBERNANTZA PUBLIKOA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	5	% 71,4	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	3	% 42,9
			1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanposarea indartzea	2	% 28,6
			1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea		% 0,0
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	2	% 28,6	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	2	% 28,6
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.		% 0,0
GUZTIRA	7			7	

## 3.1.3. Gobernu Irekia

Gobernu Irekiaren esparruak laguntzen du Euskadi finka dadin herritarren lankidetzeta, zerbitzuen hobekuntza eta gardentasun publikoa sustatzen dituzten jarduketekin konprometitu dagoen Gobernantza Publikoko Europako eskualde berritzaile gisa.

## 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Gobernu Irekia esparruak **5 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,5.

3 jarduera horien % **60** biltzen dira **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatzean eta gainerako % **40a** biltzen da **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean.

Esparru horretan garatutako jardueren artean, nabarmentzen dira Gobernu Irekiaren Aldeko Aliantzarekin (OGP) elkarlanean aritzea —Gobernantza Publikoarekin batera— eta Txileko Gardentasunerako Kontseiluko kide batekin egindako topaketa, gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko jardunbide onak partekatze aldera.

### 19. TAULA. GOBERNU IREKIA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	2	% 40,0	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	2	% 40,0
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	3	% 60,0	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	3	% 60,0
GUZTIRA	5			5	

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022an, Gobernu Irekia esparruak **9 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,9. Beraz, 2021ean baino bi jarduera gehiago dira.

2022ko 9 jarduera horien % **88,9** biltzen dira **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatzean eta % 11,1 (jarduera bat) biltzen dira **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean.

**4.2.HE Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea** helburu estrategikoarekin lotzen diren bost jardueretatik nabarmentzen da Europako OGP (Open Government Partnership) aliantzaren eskualdeko bileretan eta ekitaldietan parte hartzea.

## 20. TAULA. GOBERNU IREKIA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	1	% 11,1	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	1	% 11,1
4. Erronka globalak gaitzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	8	% 88,9	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	3	% 33,3
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	5	% 55,6
GUZTIRA	9			9	

### 3.1.4. Ogasuna eta Ekonomia

Ogasuna eta Ekonomia esparruan, Europako esparruarekin bat datorren politika baten alde egiten da, Funtz Estrukturalak eta Suspertzeko eta Erresilientzia Mekanismoa eraginkortasunez kudea daitezela.

#### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Ogasuna eta Ekonomia esparruak **10 jarduera** erregistratu zituen, **EBC 2025** estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 1,01.

Garatutako jarduerak **EBC 2025** strategiaren lau nazioartekotze-ardatzei erantzuten diete. Jardueren % **30** (hiru jarduera) biltzen dira **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean, beste % **30** biltzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean, beste % **30** biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzean eta gainerako % **10a** biltzen da **4.A. Erronka globalak gaitzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatzean.

## 21. TAULA. OGASUNA ETA EKONOMIA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	3	% 30,0	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	3	% 30,0
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	3	% 30,0	2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	3	% 30,0
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	3	% 30,0	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	3	% 30,0
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	1	% 10,0	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 10,0
GUZTIRA	10			10	

Helburu estrategikoei dagokienez, **hiru jarduera** (jardueren % 30) **1.1.HE. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburu estrategikoarekin lotzen dira, eta esparru horretan nabarmendu behar da Euskadiko bonu jasangarriaren jaulkipena (1M€) eta Euskadi aurkeztu izana Ratingeko Nazioarteko Agentziei.

2.3.HE helburu estrategikoaren barruan aipatzekoa da nazioarteko estatistika-lankidetzeta (Eustat - Conference on New Techniques & Technologies for Official Statistics (NTTS 2021) - EUROSTAT).

**3.1.HE. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea** helburu estrategikoari dagokionez, aipatu behar da Euskadiko Berreskuratze eta Erresilientzia Programa (2021-2026) eta haren eguneratzea (Europako Funtsak – Euskadi Next).

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Ogasuna eta Ekonomia esparruak **18 jarduera** garatu ditu. 18 jarduera horiek **EBC 2025** estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 1,85 dira.

18 jarduera horien % **44,4** biltzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean. Ondoren datoz **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatza (% 38,9) eta, neurri txikiagoan, **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatza (% 16,7).

## 22. TAULA. OGASUNA ETA EKONOMIA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUJAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	7	% 38,9	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	7	% 38,9
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	8	% 44,4	2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	8	% 44,4
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	3	% 16,7	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	3	% 16,7
GUZTIRA	18			18	

Helburu estrategikoei dagokienez, **2.3.HE. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)** helburua nabarmentzen da. Helburu horren barruan aipatzekoa da EUSTATEk nazioarteko hitzaldi eta ekitaldietan parte hartu izana (adibidez, Global Conference on Macroeconomic Statistics for de Future - Brusela, EUSTAT - UNECE Expert Meeting on Dissemination and Communication of Statistics 2022 - Ginebra).

**1.1.HE. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburuari dagokienez, egiaztatzen da jarraipena eman zaiela 2021ean garatutako jarduerari (esaterako Euskadi bonu jasangarriaren jaulkipena, Euskadi Rating Agentziei aurkeztea).

# 3.2.

## Ehun Ekonomikoa esparrua

### 3.2.1. Enpresen Nazioartekotzea

Kanpo Harremanak esparruarekin batera, Enpresen Nazioartekotzea esparrua da Nazioartekotze Estrategiaren hedapena eusten duen zutabeetako bat.

## 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Enpresen Nazioartekotzearen esparru tematikoan **114 jarduera** garatu ziren, urte horretan **EBC 2025** estrategiaren barruan garatutako jardueren % 12,10.

114 jarduera horien % **96,5** biltzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean, haren **hiru helburu estrategikoekin. 1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzarekin (% 2,6) eta **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzarekin (% 0,9) lotzen diren jarduerak, aldiz, oso urriak dira.

### 23. TAULA. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	3	% 2,6	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	2	% 1,8
			1. 2. Eusko Jaurilaritzaren kanpo-sarea indartzea	1	% 0,9
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	110	% 96,5	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	21	% 18,4
			2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	57	% 50,0
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	32	% 28,1
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	1	% 0,9	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	1	% 0,9
GUZTIRA	114			114	

➔ **2.2.HE. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea** helburu estrategikoa nabarmentzen da, **57 jarduera** biltzen baititu, hau da, 2021ean esparru horretan garatutako jardueren % **50**, eta EBC 2025 estrategiaren esparruan 2021ean garatutako jarduera guztien % 6,05.

Berrogeita hamar misio presentzial eta birtual baino gehiago egin ziren, zuzenak eta zeharkakoak, Europako, Amerikako eta Asiako zenbait merkaturekin, **Ris3 Euskadiko jarduera ekonomikoko sektoreei begira**. Adibide gisa, hauek nabarmentzen dira: Akitania Berriko/Euskadiko Bioosasun Industrien 6. Topaketa; Euskadiko eta Galesko enpresen arteko enpresa- eta erakunde-misioa, 2021eko martxoko aste oso batez modu birtualean egin zena osasunaren eta bizi-zientzien sektorean elkarlanean aritzeko; edo Ekonomiaren Garapeneko sailburuak Milango makina-erremintaren azokan egindako bisita.

- Garatutako jarduera kopuruaren arabera, bigarren helburu estrategikoa **HE.2.3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)** helburua da, hogeita hamabi jarduerarekin, hau da, garatutako jardueren % 28,1 (EBC 2025 estrategiaren esparruan garatutako jarduera guztien % 3,4).

Helburu estrategiko horretan barne hartu ziren nazioartekotze-bekak, BEINT, Brexit jardunaldiak, pandemiak eragindako mugikortasun murrizketei buruz klusterrek egindako kontsultak, eta abar.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Enpresen Nazioartekotzea esparru tematikoan **62 jarduera** erregistratu ziren, 2021. urtean baino ia % 46 gutxiago. 62 jarduera horiek urte horretan EBC 2025 estrategiaren barruan garatutako jarduera guztien % 6,38 dira.

62 jarduera horien % **77,4** biltzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean eta, neurri txikiagoan, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean (% 11,3), **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzean (% 6,5) eta **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatzean (% 4,8).

### 24. TAULA. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	7	% 11,3	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	4	% 6,5
			1. 2. Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea	3	% 4,8
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	48	% 77,4	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	5	% 8,1
			2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	27	% 43,5
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	16	% 25,8
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	4	% 6,5	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	1	% 1,6
			3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	3	% 4,8



4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	3	% 4,8	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	2	% 3,2
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 1,6
GUZTIRA	62			62	

Helburu estrategikoei dagokienez, **2022an Enpresen Nazioartekotzea** esparru estrategikoan bultzatutako hirurogeita bi (62) jardueretatik **berrogeita hiru (43)**, hau da, jardueren **% 69,4, A.2. ardatz estrategikoko bi helburu estrategikotan** biltzen dira.

→ **2.2.HE. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzen laguntzea** helburu estrategikoa nabarmentzen da, **27 jarduera** biltzen baititu, hau da, 2022an esparru horretan garatutako jardueren **% 43,5**, eta EBC 2025 estrategiaren esparruan 2022an garatutako jarduera guztien **% 2,78**.

Ahaleginak egin ziren Zabaldu edo Sakondu gisako enpresen nazioartekotze-programen deialdiak egokitu, tramitatu eta irekitzeko, Ganbarekin Urteko Hitzarmena sinatzeko, eta jardunaldiak eta ekitaldiak egiteko. Basque Trade and Investment agentziak aditzera eman du nazioarteko merkatuetan negozio-aukerak identifikatzeko eta erakartzeko 38 ekitaldi antolatu dituela agentziak eta ekitaldi horietan 400 euskal enpresak baino gehiagok parte hartu dutela.

→ Garatutako jarduera kopuruaren arabera, bigarren helburu estrategikoa **HE.2.3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)** helburua da, hamasei jarduerarekin, hau da, garatutako jarduera guztien **% 25,8** (EBC 2025 estrategiaren esparruan garatutako jarduera guztien **% 1,65**).

Alemaniarra eta Hego Koreara —EBC 2025eko lehentasunezko herrialdeak biak— egindako misioen berri eman da. Alemaniara egindako misio instituzionalaren esparruan, Munichen ekitaldi bat egin zen euskal erbesteratuekin, Euskadira talentua erakartze aldera.

Horrez gain, aipatzekoa da euskal enpresen nazioartekotzea sustatzeko Intergune Biltzarraren garapena —txosten sektorialak, nazioartekotze-tailerrak eta enpresen nazioartekotzean euskal talentua sustatzeko Talent Spot—.

Deustuko Unibertsitatearekin batera egin zen Euskadik herrialde estrategikoetan duen esportazio-ahalmenari buruzko azterketa.

## 3.2.2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura esparruaren xedea da euskal elikadura-sektorea nazioarteko erreferente gisa posizionatzea. Produktuen berrikuntzan eta kalitatean oinarrituko da, betiere euskal produktuak eta teknikak kanpoan merkaturatzeko, hedatzeko eta sentsibilizatzeko estrategia integral baten bidez.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura esparruak **23 jarduera** erregistratu zituen, **EBC 2025** estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien **% 2,44**.

23 jarduera horien % **69,6** biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzaren barruan. Ondoren datoz **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatza (% 21,7) eta, neurri txikiagoan, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** (% 4,3) eta **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** (% 4,3) ardatzak.

## 25. TAULA. NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	1	% 4,3	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	1	% 4,3
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	5	% 21,7	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	4	% 17,4
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	1	% 4,3
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	16	% 69,6	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	12	% 52,2
			3. 3. Euroeskualdea sendotzea	4	% 17,4
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	1	% 4,3	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 4,3
GUZTIRA	23			23	

Helburu estrategikoei dagokienez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura esparruan 2021ean bultzatutako hogeita hiru (23) jardueretatik **hogeita (20)**, hau da, jardueren % 87, hiru helburu estrategikotan ardatzuta dira: 3.2.HE, 3.3.HE eta 2.2.HE helburu estrategikoetan.

Helburu estrategiko horietan biltzen dira martxan diren nazioarteko zenbait lankidetzako proiektuekin lotutako jarduerak: LIFE BACCATA (Kantauri Mendilerroko hagin-basoak kontserbatzeko eta lehengoratzeko proiektua), BASO ETA ZUR PARKEA (Euskadiko Landa Garapenerako Programaren M16 proiektua, maila guztietan basoaren eta zuraren arloko prestakuntza hobetzeko eta prestakuntza-sarea sortzeko), VARIFOR (MULTIFOREVER proiektuaren jarraipena, pinus radiata), SEAWINES (mahastizaintza eta ardogintza zirkular eta jasangarrirantz), eta abar.

ReCROP proiektua ere nabarmentzen da. Eskualde mediterraneoko nekazaritzaren jasangarritasuna eta produktibitatea arrisku larrian daude klima-aldaketaren ondorioz eta baliabide hidrikoak

agortzearen ondorioz. ReCROP proiektuak Mediterraneoko Eremu Geografikoa (MEG) hartzen du, hau da Maroko, Egipto, Tunisia (MEG hegoaldea), Italia eta Frantzia (MEG iparraldea) eta Portugal eta Espainia (MEG mendebaldea), eta barne hartzen ditu herrialde horietako labore nagusiak: mahastiak, zerealak eta landare aromatikoak/medizinalak; INFLUOMA, hegazti-gripearen birusarekin modu naturalean kutsatutako hegazti basatien birusen eta bakterioen azterketa.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura esparruak **28 jarduera** erregistratu zituen, 2021. urtean baino bost gehiago. 28 jarduera horiek EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 2,88 dira.

28 jarduera horien % 50 garatzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean. Ondoren datoz **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatza (% 25) eta, neurri txikiagoan, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** (% 17,9) eta **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** (% 7,1) ardatzak.

### 26. TAULA. NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUJAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	5	% 17,9	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: berezia, erakargarria eta inklusiboa	5	% 17,9
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	14	% 50,0	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	10	% 35,7
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	4	% 14,3
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	7	% 25,0	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	7	% 25,0
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	2	% 7,1	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	1	% 3,6
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 3,6
GUZTIRA	28			28	

Helburu estrategikoei dagokienez, Nekazaritza, arrantza eta elikadura esparruan 2022an bultzatutako hogeita zortzi (28) jardueretatik **hamazazpi (17)**, hau da, jardueren % 60,7, bi helburu estrategikotan oinarritu dira: 2.2.HE eta 3.2.HE helburu estrategikoetan.

2021. urtean bezalaxe, esparru tematiko horren jarduera proiektuen garapenean ardatzen da. Kasu honetan, Europar Batasunaren CHAFEA agendak Europako produktuak hirugarren herrialdeetan sustatzeko onartutako **CAPRICE** proiektua nabarmentzen da. Zehazki, Euskadiko sor-markako txakolinak, eusko labela duten Ibarako Piperrak eta Kantauriko Euskal Autonomia Erkidegoko kontserbak (antxoak eta hegaluzea) Ameriketako Estatu Batuetako eta Japoniako merkatuetan sustatzea du helburu.

Gainera, esparru horretan sartzen dira **Chicago eta Miamirekin Zuzeneko Merkataritza Misioan** parte hartzea (Europako CAPRICE proiektuaren esparruan, 3 sor-markako txakolinak eta Ibarako Piperrak sustatzeko) edo SIAL PARIS gisako azoketan parte hartzea (euskal elikagai-industriak EUSKADI BASQUE COUNTRY markarekin hartu zuen parte).

### 3.2.3. Turismoa

Turismoaren esparrua funtsezkotzat jotzen da **EBC 2025** estrategia hedatzeko. Turismoaren Gida Planak eta EBC 2025 estrategiak euskal gizartearentzat ongizatea sortzeko eta,aldi berean, kultura eta tradizioei eusteko eta Euskadi modu jasangarrian hazi eta helmuga bikain eta espezializatu gisa finkatzeko ikuspegia partekatzen dute.

#### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Turismoa esparruak **19 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 strategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 2,02.

19 jarduera horien % **68,4** biltzen dira **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean eta, neurri txikiagoan, **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzean (% 21,1) eta **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean (% 10,5).

**1.1.HE Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburu estrategikoaren barruan 2021ean garatutako **hamahiru jardueren** artean, nabarmentzen da azoka haueetan parte hartu izana: ILTM Cannes azoka, luxuzko turismoari eta premium-turismoari eskainia; **ITB BERLIN**, 2021ean online egin zen azoka eta Euskadik (Baskenland) 18 erakuslerekin parte hartu zuen, tartean zirela helmugak, elkarteak, hotel-kateak eta bidaiia-agentzia hartzaileak.

Beste ekitaldi aipagarri batzuk dira: ROADSHOW DESTINO ESPAÑA, Italiako turismo-sektorearekin B2B hitzordu bidezko zuzeneko jardunaldiak Italiako iparraldeko eta hegoaldeko hainbat hiritan, Erromako eta Milango Espainiako Turismo Bulegoek antolatuta; Euskadiko Astea Facebooken eta Instagramen, Lisboako Espainiako Turismo Bulegoaren Facebook orrian Euskadiri buruzko eduki esklusiboak dituzten 5 post argitaratuta 5 egunetan jarraian — gaur egun orri horrek 123.000tik gora lagun portugaldar ditu—.

## 27. TAULA. TURISMOA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	13	% 68,4	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	13	% 68,4
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	2	% 10,5	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	2	% 10,5
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	4	% 21,1	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	1	% 5,3
			3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	3	% 15,8
GUZTIRA	19			19	

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Turismoa esparruak **22 jarduera** garatu zituen, **EBC 2025** estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 2,26. Beraz, 2021ean baino hiru jarduera gehiago dira.

22 jarduera horien % **91** biltzen dira **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatzean eta **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean, % 45,5 kasu bakoitzean.

1.1.HE helburu estrategikoari dagokionez, aipatzekoak dira: Espainiako Turismo Bulegoak Milanen —Italiako modaren hiriburuan— antolatutako workshop batean “Euskadi Confidential” aurkeztea 80 bidaiari-antolatzaile eta kazetari italiarren aurrean; Parisen EUSKADI - PAYS BASQUE CONFIDENTIAL aurkeztea; bidaiaren eta turismoaren sektorearekin lotzen den Tokioko JATA azokan parte hartzea; luxuzko turismoari berariaz eskainitako EMOTIONS nazioarteko azokan parte hartzea; eta abar.

Era berean, aipatzekoa da 2022an Euskadi aurkeztu zela Portoko SAGARDI jatetxean, Lisboako Espainiako Turismo Bulegoarekin elkarlanean antolatutako sustapen-jardunaldi batean. Ekitaldira Portugalgo 40 bidaiari-agentzia eta kazetari bertaratu ziren.

## 28. TAULA. TURISMOA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	10	% 45,5	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	10	% 45,5

2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	10	% 45,5	2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	10	% 45,5
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	1	% 4,5	3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	1	% 4,5
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	1	% 4,5	4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 4,5
GUZTIRA	22			22	

## 3.2.4. Enplegua

Enplegua eta enpleguaren kalitatea Eusko Jaurlaritzaren jardun politikoaren lehentasun negoziatua da. Nazioarteko jardunean, EBC estrategiak Euskadiko Enplegu Zentro Berezien eredu nazioartekotzearen aldeko apustua egiten du.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Enplegua esparruak **4 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,4.

Jarduera horien % 50 biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzaren barruan, eta lotura dute **3.3.HE. Euroeskualdea sendotzea** helburu estrategikoarekin. Hor sartzeko dira Eskualdeetako Lan Merkatuak Monitorizatzeko Europako Sarearen (RLMM) (LANBIDE) urteko jardunaldiak eta lantaldeak, baita **ERASMUS+ ACSOL** proiektua ere (online ikaskuntzaren bidez krisiei aurre egiteko konpetentziak eskuratzeko proiektua, Erasmus+ Europako funtsekin finantzatua eta Lanbideren koordinaziopean).

**4.1.HE. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik** helburu estrategikoari dagokionez, 2021ean Enpleguaren IV. Kongresua egin zen, 2030eko Euskal Enplegu Estrategiaren ikuspegitik. Kongresu horretan, hizlari gisa parte hartu zuen Nicolas Schmit, Europar Batasuneko Enplegu eta Gizarte Eskubideen komisarioak.

#### 29. TAULA. ENPLEGUA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	2	% 50	3. 3. Euroeskualdea sendotzea	2	% 50,0

4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	2	% 50,0	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	2	% 50,0
GUZTIRA	4			4	

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Enplegua esparruak **8 jarduera** erregistratu zituen, 2021ean erregistratutakoaren bi-koitza. EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 0,8 dira.

Jarduera horien % **62,5** biltzen dira **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatzean. Ondoren datoz **4.A. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea** ardatza (% 25) eta, neurri txikiagoan, **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatza (% 12,5).

**3.3.HE. Euroeskualdea sendotzea** helburu estrategikoaren barruan erregistratutako jardueren artean nabarmentzen da aurretik garatzen ari ziren jardueri eta programei jarraipena ematea, hala nola Eskualdeetako Lan Merkatuak Monitorizatzeko Europako Sarean (RLMM) (LANBIDE) parte hartzeari, ERASMUS+ ACSOL proiektuari, eta ERASMUS+ E-MLSR: European Mid Life Skills Review programari (ERASMUS+ 2021-2023 plangintzaren arabera emango zaio jarraipena proiektuari).

Horrez gain, 2022ko Enpleguaren V. Kongresua ere nabarmendu behar da, "Euskal enplegu-politikak eraldatzen, ekonomia jasangarri eta lehiakor batean lan duina izateko" lelopean.

### 30. TAULA. ENPLEGUA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	1	% 12,5	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	1	% 12,5
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	5	% 62,5	3. 3. Euroeskualdea sendotzea	5	% 62,5
4. Erronka globalak gaintzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	2	% 25,0	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	2	% 25,0
GUZTIRA	8			8	

# 3.3.

## Kultura, Kirola eta Hizkuntza-Politika esparrua

### 3.3.1. Kultura

Kultura esparruak sekulako garrantzia du Euskadi Basque Country markaren elementu bereizgarri gisa, eta beste gobernu-esparru batzuk nazioartekotzeko aurkezpen-gutun gisa.

#### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

2021. urtean, Kultura esparruak **27 jarduera** erregistratu zituen, EBC 2025 estrategiaren barruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 2,87.

27 jarduera horien % **59,3** biltzen dira **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** ardatzean. Ondoren datoz **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatza (% 25,9) eta, neurri txikiagoan, **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** ardatza (% 14,8).

31. TAULA. KULTURA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2021EAN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2021eko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2021eko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	7	% 25,9	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	6	% 22,2
			1. 3. Euskal Komunitate Globala eraikitzea	1	% 3,7
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	16	% 59,3	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	3	% 11,1
			2. 2. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzatzeko laguntzea	11	% 40,7
			2. 3. Ezagutza eta gaitasunak erakartzeko laguntzea, trantsizioei erantzuteko (teknologiko-digitala eta berdea)	2	% 7,4



3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	4	% 14,8	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	1	% 3,7
			3. 2. Euskal eragileak Europar Batasunaren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea	1	% 3,7
			3. 3. Euroeskualdea sendotzea	2	% 7,4
GUZTIRA	27			27	

Helburu estrategikoei dagokienez, **hamaika jarduerak** (% 40,7) erantzuten diote **2.2.HE. Gure ehun sozioekonomikoari bere proiektuak nazioartean gauzaten laguntzea** helburu estrategikoari.

Hemen, proiektu hau nabarmentzen da: BEIJING+25etik berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritar batera. Proiektua abiarazten UN WOMEN HQko ordezkari batek parte hartu zuen (Priya Álvarez).

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

2022. urtean, Berdintasunaren esparruan **24 jarduera** erregistratu dira, EBC 2025 estrategiaren esparruan urte horretan garatutako jarduera guztien % 2,5.

24 jarduera horien % 45 ardatz honako honen barruan daude: **4.A. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea**. Ondoren dator **1.A. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea** ardatza (% 33,3) eta, neurri txikiagoan, **3.A. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea** (% 16,7) eta **2.A. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea** (% 4,2) ardatzak.

Helburu estrategikoei dagokienez, 2022an Berdintasunaren esparruan bultzatutako jardueren % 41,7 4.1.HE. **Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik** helburuari dagozkio, eta % 33,3 gehigarri 1.1.HE. **Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa** helburuari.

**NBE Emakumeak El Salvador + Emakunde + eLankidetzak erakundearekin elkarlanean** egindako lana, Lankidetzarako Euskal Agentziaren eta NBE Emakumeak El Salvador erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan, eta EMAKUNDEK Ekintza Klimatikoaren Zentroan emakumeen autonomiari eta genero-berdintasunari buruz Costa Ricako aditu Lorena Aguilarrekin egindako topaketa. ONU-MUJERESEN GenerationEquality kanpaina globalaren barruan Euskadik "Generation Equality"ren esparruan egindako aurkezpena da 2022an berdintasunaren arloan egindako lankidetzako 20 aurkezpen-jardueretako bat da.

### 70. TAULA. BERDINTASUNA: NAZIOARTEKOTZE-ARDATZAREN ETA HELBURUAREN ARABERA GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUERAK 2022AN (KOPURUA ETA GUZTIZKOAREN GAINEKO %)

Nazioartekotze-ardatza	2022ko jarduerak	%	Helburu estrategikoa	2022ko jarduerak	%
1. Euskadi Basque Countryren kanpo-posizionamendua hobetzea	8	% 33,3	1. 1. Gure herrialde-marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa	8	% 33,3
2. Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea	1	% 4,2	2. 1. Harreman instituzionalak indartzea eta nazioarteko bazkide eta aliantzekin egiten den lana sakontzea	1	% 4,2
3. Europar proiektuari ekarpena egitea eta beraren partaideetako bat izatea	4	% 16,7	3. 1. Europar Batasunaren politiken konfigurazioan parte hartzea	4	% 16,7
4. Erronka globalak gainditzera zuzendutako euskal ekarpena indartzea	11	% 45,8	4. 1. Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei ekarpena egitea Euskal Politika Publikoetatik	10	% 41,7
			4. 2. Euskadi Basque Country Nazioarteko Erakunde nagusien artean posizionatzea.	1	% 4,2
GUZTIRA	24			24	

JARDUERAREN  
ANALISIA ESPARRU  
GEOGRAFIKOAREN  
ARABERA



# 4.1.

## Egoera orokorra

**EBC 2025** estrategiak **herrialde eta eskualde multzo bat lehenesten du Euskadirentzat estrategikoak diren lurralde geografikotzat**. Horiek kanpoan funtsezko euskal interesak kontzentratzen dituzte.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

**2021ean erregistratutako 942 jardueretatik** 202 ez daude eremu geografiko jakin baten arabera sailkatuta. Beraz, **740 erregistrok** soilik ematen dute kokapen zehatz baten berri.

Ekintza edo proiektu bat eremu geografiko batean baino gehiagotan gara daitekeenez, 740 jarduera horien erregistroek **802 aldiz** aipatzen dute datu-basean zehaztutako esparru geografikoari buruzko sei kategorietako bat (Afrika, Amerika, Asia, Europa, Ozeania eta EB / Nazioarteko Erakundeak).

802 aipamenetatik esparru geografiko gisa EB / Nazioarteko Erakundeak markatu dituzten 112 jarduerak deskontatuta, eremu geografiko zehatz bati buruzko 690 aipamen geratzen dira. Analisi honen ondorioetarako, **690 aipamen** horiek hartzen dira analisiaren oinarritzat.


#### 71. TAULA. JARDUERAK EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA, 2021. URTEA (KOPURUA ETA EHU-NEKOA)

2021, 942 jarduera	Esparru geografiko bakarra aipatzen duten jarduerak	Besteak beste, esparru geografiko hori aipatzen duten jarduerak	Aipamenak guztira	Aipamenak guztira (%)
Afrika	16	20	36	% 5,22
Amerika	136	23	159	% 23,04
Asia	44	12	56	% 8,12
Europa	419	9	428	% 62,03
Ozeania	2	9	11	% 1,59
EB/Erakundeak	112		112	-
	<b>729</b>	<b>73</b>	<b>802</b>	
		EB/Erakundeak	-112	
		<b>Aipamenak GUZTIRA</b>	<b>690</b>	% 100,00

**European, bertako herrialde eta eskualdeetan**, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-jardueren **% 62 garatzen dira**.

Europaren atzetik, **kontinente amerikarra** dago, non nazioartekotze-jardueren % 23 erregistratu diren; ondoren, Asia (% 8,12), Afrika (% 5,22) eta Ozeania (% 1,59) datoz.

#### 4. ILUSTRAZIOA. 2021EAN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, KONTINENTEAREN ARABERA




2021ean erregistratutako nazioartekotze-ekintzen herrialde hartzaileei dagokienez, **259 jarduera** herrialde bakar batean garatu dira. Anlisi hau herrialdeka egiteko, 259 jarduera horiek hartzen dira kontuan.

259 jardueretatik 204 **EBC 2025** estrategiaren **lehentasunezko 19 herrialdeetako** herrialderen batean garatu dira. 204 jarduera horien % 37,75 Europako lehentasunezko zazpi herrialdeetako batean garatu dira; % 48,04 Amerikako sei herrialdeetako batean; eta gainerako % 14,22a Asiako eta Afrikako lehentasunezko sei herrialdeetako batean.


Bestalde, lehentasunezko eskualdeei dagokienez, **Akitania - Ipar Euskal Herria, Quebec** eta **Jiangsu** dira jarduerak identifikatzen diren lehentasunezko eskualde nagusiak (lehentasunezko herrialde batean erregistratutako 204 jardueretatik 50ek soilik zehazten dute eskualde jakin bat herrialde horren barruan).

5. ILUSTRAZIOA. 2021EAN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, HERRIALDEAREN ARABERA



Oharra: Aipameneren ehunekoak. Herrialde bakar batean ardatzuta dauden eta helburua/helmuga lehentasunezko herrialdeetako bat duten proiektuak baino ez ditu barne hartzen. Oinarria: 204 aipamen.

## 6. ILUSTRAZIOA. 2021EAN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, LEHENTASUNEZKO ESKUALDEAREN ARABERA



Oharra: Aipameneren ehunekoa. Herrialde bakar batean arduztuta dauden eta helburua/helmuga lehentasunezko herrialdeetako bat duten proiektuak baino ez ditu barne hartzen. Oinarria: 23 aipamen.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

**2022an erregistratutako 972 jardueretatik**, 245 ez daude eremu geografiko jakin baten arabera sailkatuta. Beraz, **727 erregistrok** soilik ematen dute kokapen zehatz baten berri.

Ekintza edo proiektu bat eremu geografiko batean baino gehiagotan gara daitekeenez, 727 jarduera horien erregistroek **773 aldiz** aipatzen dute datu-basean zehaztutako esparru geografikoari buruzko sei kategorietako bat (Afrika, Amerika, Asia, Europa, Ozeania eta EB / Nazioarteko Erakundeak).

773 aipamenetatik esparru geografiko gisa EB / Nazioarteko Erakundeak markatu dituzten 132 jarduerak deskontatuta, eremu geografiko zehatz bati buruzko 641 aipamen geratzen dira. Analisi honen ondorioetarako, **641 aipamen** horiek hartzen dira analisiaren oinarritzat.


## 72. TAULA. JARDUERAK EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA, 2022. URTEA (KOPURUA ETA EHU-NEKOA)

2022, 972 jarduera	Esparru geografiko bakarra aipatzen duten jarduerak	Besteak beste, esparru geografiko hori aipatzen duten jarduerak	Aipamenak guztira	Aipamenak guztira (%)
Afrika	12	13	25	% 3,90
Amerika	164	22	186	% 29,02
Asia	21	12	33	% 5,15
Europa	367	25	392	% 61,15
Ozeania	1	4	5	% 0,78
EB/Erakundeak	132		132	-
	<b>697</b>	<b>76</b>	<b>773</b>	
		EB/Erakundeak	-132	
		<b>Aipamenak GUZTIRA</b>	<b>641</b>	% 100,00

**European, bertako herrialde eta eskualdeetan**, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-jardueren % 61 garatzen dira.

Atzetik **kontinente amerikarra** dago, non nazioartekotze-jardueren % 29 erregistratu diren; ondoren, Asia (% 5), Afrika (% 3,9) eta Ozeania (% 0,8) datoz.

## 7. ILUSTRAZIOA. 2022AN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHU-NEKOA, KONTINENTEAREN ARABERA






2021ean erregistratutako nazioartekotze-ekintzen herrialde hartzaileei dagokienez, **297 jarduera** herrialde bakar batean garatu dira.

297 jarduera horietatik 218 **EBC 2025** estrategiaren **lehentasunezko 19 herrialdeetako** herrialde-  
ren batean garatu dira. 218 jarduera horien % 31,2 Europako lehentasunezko zazpi herrialdeetako  
batean garatu dira; % 59,2 Amerikako sei herrialdeetako batean; eta gainerako % 9,6a Asiako eta  
Afrikako lehentasunezko sei herrialdeetako batean.

Bestalde, lehentasunezko eskualdeei dagokienez, **Akitania - Ipar Euskal Herria** da jarduerak iden-  
tifikatzen diren lehentasunezko eskualde nagusia, eta, neurri txikiagoan, **Quebec, Querétaro** edo  
**Gales** eta **Jiangsu** eskualdeak (guztira, lehentasunezko herrialde batean erregistratutako 218 jar-  
dueretatik 27k zehazten dute eskualde jakin bat herrialde horren barruan).

8. ILUSTRAZIOA. 2022AN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, HERRIAL-  
DEAREN ARABERA



Oharra: Aipameneren ehunekoa. Herrialde bakar batean ardatzuta dauden eta helburua/helmuga lehentasunezko herrialdeetako bat duten proiektuak baino ez ditu barne hartzen. Oinarria: 218 aipamen.

## 9. ILUSTRAZIOA. 2022AN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, LEHENTASUNEZKO ESKUALDEAREN ARABERA



Oharra: Aipameneren ehunekoa. Herrialde bakar batean ardatzuta dauden eta helburua/helmuga lehentasunezko herrialdeetako bat duten proiektuak baino ez ditu barne hartzen. Oinarria: 27 aipamen

## JARDUERAREN EMAITZAK 2021-2022 BIURTEKOAN

**2021-2022 aldian erregistratutako 1.914** jardueretatik, 447 jarduera ez daude eremu geografiko jakin baten arabera sailkatuta. Beraz, **1.467 erregistrok** soilik ematen dute kokapen zehatz baten berri.

Ekintza edo proiektu bat eremu geografiko batean baino gehiagotan gara daitekeenez, 1.467 jarduera horien erregistroek **1.575 aldiz** aipatzen dute datu-basean zehaztutako esparru geografikoari buruzko sei kategorietako bat (Afrika, Amerika, Asia, Europa, Ozeania eta EB / Nazioarteko Erakundeak).

1.575 aipameneretatik esparru geografiko gisa EB / Nazioarteko Erakundeak markatu dituzten 244 jarduerak deskontatuta, eremu geografiko zehatz bati buruzko 1.331 aipamen geratzen dira. Análisi honen ondorioetarako, **1.331 aipamen** horiek hartzen dira analisiaren oinarritzat.


## 73. TAULA. JARDUERAK EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA, 2021-2022 ALDIA (KOPURUA ETA EHUNEKOA)

2021-2022 1.914 jarduera	Esparru geografiko bakarra aipatzen duten jarduerak	Besteak beste, esparru geografiko hori aipa- tzen duten jarduerak	Aipamenak guztira	Aipamenak guztira (%)
Afrika	28	33	61	% 4,58
Amerika	300	45	345	% 25,92
Asia	65	24	89	% 6,69
Europa	786	34	820	% 61,61
Ozeania	3	13	16	% 1,20
EB/Erakundeak	244		244	-
	<b>1.426</b>	<b>149</b>	<b>1.575</b>	
		EB/Erakundeak	-244	
		<b>Aipamenak GUZTIRA</b>	<b>1.331</b>	% 100,00

Esparru geografikoari dagokionez, 2021. eta 2022. urteen artean ez da aldaketa aipagarririk jaso. **Europan, bertako herrialde eta eskualdeetan**, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze-jardueren % **61,61 garatzen** dira (% 62,03 2021ean eta % 61,15 2022an).

Atzetik **kontinente amerikarra** dago, non 2021-2022 biurtekoan garatutako nazioartekotze-jardueren % 25,92 erregistratu diren; ondoren Asia (% 6,69), Afrika (% 4,58) eta Ozeania (% 1,2) datoz.

## 10. ILUSTRAZIOA. 2021-2022 ALDIAN GARATUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EHUNEKOA, KONTINENTEAREN ARABERA



2021-2022 aldian erregistratutako nazioartekotze-ekintzen herrialde hartzaileei dagokienez, **556 jarduera** herrialde bakar batean garatu dira.

556 jarduera horietatik, 422 **EBC 2025** estrategiaren lehentasunezko **19** herrialdeetako herrialderen batean garatu dira. 422 jarduera horien % 34,36 Europako lehentasunezko zazpi herrialdeetako batean garatu dira; % 59,2 Amerikako sei herrialdeetako batean; eta gainerako % 9,6a Asiako eta Afrikako lehentasunezko sei herrialdeetako batean.

Bestalde, lehentasunezko eskualdeei dagokienez, **Akitania - Ipar Euskal Herria** da jarduerak identifikatzen diren lehentasunezko eskualde nagusia, eta ondoren datoz **Quebec, Querétaro, Gales** eta **Jiangsu** eskualdeak (guztira, lehentasunezko herrialde batean erregistratutako 422 jardueretatik 77 zehazten dute eskualde jakin bat herrialde horren barruan).

## LEHENTASUNIK GABEKO HERRIALDEETAKO JARDUERA

Lehentasunezkoak ez diren herrialdeetan egindako 134 jardueretatik (55 2021ean eta 79 2022an), honako hauek nabarmendu daitezke:

- 36 herrialdek biltzen dituzte 134 jarduera horiek (23 herrialde 2021ean eta 31 herrialde 2022an).
- Soilik bost (5) herrialdek dituzte bost jarduera edo gehiago (Belgika, Uruguai, Portugal, Brasil eta Kuba).
  - Belgika nabarmentzen da 41 jarduerarekin (16 jarduera 2021ean eta 25 jarduera 2022an). Hori logikoa da, Bruselan baitago bai Europar Batasunaren egoitza, bai Euskadik Europar Batasunerako duen Ordezkaritzarena. Ordezkaritza horren jarduera EBko erakundeetan iraunkorra eta oso bizia da.
  - Uruguai hiru jarduera biltzen ditu 2021ean, eta bost 2022an.
  - Portugal 7 jardueraren helburu da (bi 2021ean eta bost 2022an).
  - Brasil 6 jarduerarekin agertzen da 2021-2022 biurtekoan (3 urte bakoitzean).
  - Kuba (2021ean jarduerarik gabe) bost jardueraren helmuga da 2022an.

# 4.2.

## Lehentasunezko herrialdeetako jarduera

**EBC 2025** estrategian zehaztutako lehentasunezko herrialde ia guztietan garatu dira jarduerak.

### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

**EBC 2025** strategiako lehentasunezko herrialde guztietan garatu dira jarduerak. Guztira, lehen aipatu bezala, 204 jarduera egin dira **EBC 2025** strategiako lehentasunezko **19 herrialdeetako** herrialde bakar batean.

Egindako jarduera kopuruaren arabeko herrialdeen rankingean honako hauek dira nagusi: Estatu Batuak (29), Mexiko (27), Frantzia (21), Erresuma Batua (20), Italia (14), Alemania (12), Txile (12), Kolonbia (12), Txina (11), Argentina (9), Kanada (9), India (5), Japonia (5), Suedia (5), Hego Korea (4), Finlandia (3), Danimarka (2), Senegal (2) eta Hegoafrika (2). Hala ere, eta EBC estrategian zehaztutako ia herrialde guztietan garatu dira jarduerak.

**Kontinente amerikarrean** lehentasunezko herrialdeetan garatutako jarduera guztien % **48** erregistratu da. Jarduera Estatu Batuetan, Mexikon, Txilen eta Kolonbian oinarritu zen batez ere, herrialde horietan guztietan Eusko Jaurlaritzak ordezkari batzorde propioa baitu. EBC estrategiak aurreikusitako lehentasunezko beste herrialde batzuetan ere garatu ziren jarduerak.

**Estatu Batuetan**, garatutako jarduera gehienak Kanpo Harremanen eta Enpresen Nazioartekotzearen esparruetatik bultzatu dira. Lehendakariak AEBetako ad interim enbaxadorearekin egin zituen bilerak, besteak beste. Interes ekonomiko eta komertzialen sustapena misio komertzialen bidez egin zen, hala nola IPFri (The International Offshore Wind Partnering Forum) egindakoaren bidezkoa, Bio AEB zuzeneko misioaren bidezkoa, etab. Jardueraren funtsezko partetzat, nabarmentzekoak dira Energiari buruzko NBEren Goi Mailako Elkarrizketan parte hartu izana, "Basque Country-USA: Evolution and Future Relationship" nazioarteko mintegian parte hartu izana, edo New Yorkeko Euzko Etxean Picasso Presents Gernika dokudramaren proiektua.

**Mexikon**, harreman diplomatikoak estutzera eta euskal interes sektorial eta ekonomikoak sustatzera bideratu dira batez ere garatutako jarduerak. Maila goreneko lotura instituzionalak garatu dira. Horretarako, Kanpo Harremanetarako idazkaria garrantzizko organoekin bildu da, hala nola Indarkeria Prebenitzeko eta Desagerrarazteko Batzorde Nazionalarekin (CONAVIM) eta Gobernadoreen Konferentzia Nazionalarekin (Conago). Gainera, Celayako udal-gobernuarekin eta Ekonomiaren Garapenerako Zuzendaritzarekin instituzionala egin da. Azpimarratzekoa da, halaber, hiru saioko ekitaldi birtual bat egin izana (martxoak 22, 25 eta 26) 10 euskal enprekin eta AEBetako kamioi-fabrikatzaile ezagun baten hornitzaileen garapenerako sailarekin.

**Txilen**, nabarmentzekoa da 2021eko Euskararen Nazioarteko Eguna eta Gernikako Bonbardaketaren Urteurrena ospatu izana. Aipatzekoa da, halaber, Txileko Gobernuko Gardentasunerako kontseilariak Euskadira egindako bisita instituzionala, baita Euskadik Mexikon duen Ordezkarietara egindakoa ere (Aguascalientes Estatuko gobernadore hautatuaren bisita). Era berean, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariak hizlari

gisa parte hartu izana Txileko Berrikuntza eta Ekonomia Zirkularreko Zentroak (CIEC) antolatutako Hirietako Ekonomia Zirkularrerako Eraldaketa Digitalaren Nazioarteko Mintegian.

**Kolonbian**, aipatzekoa da lehendakariak egindako bilera Kolonbiako Vivamos Humanos fundazioko presidente ohi Samper-ekin, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, UNESCO katedrak eta Garabidek hizkuntza gutxituen arteko lankidetzarako lankidetzeta-hitzarmena sinatu izana. Azkenik, orobat, nabarmentzekoa da Basque Trade-ren 2021-2024 Nazioartekotze Plana sozializatzeko webinar bat egin izana. Cundinamarca-ko Gobernazioari egindako transferentzia.

**Europan**, lehentasunezko herrialdeetan egindako jarduera guztien % **38** erregistratu dira. Jarduera nagusia Frantzian, Erresuma Batuan, Italian eta Alemanian egon zen ardaztuta.

**Frantzian**, Euskadiren Parisko Ordezkaritza inauguratu da, eta lanean jarraitu da Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euroeskualdearen barruan mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko kohesioa indartzeko, baita Euroeskualdearen Batzar Nagusiaren barruan lankidetzeta eta lurraldearen egituraketa areagotzeko ere, hainbat proiekturen bidez —adibidez, Adimen Teknologikoko Laborategi berria—. Era berean, Euskadiren eta haren eragileen irudia bultzatu da ekitaldi sektorialetan, hala nola ILTMn (Turismoa) eta POLLUTECen (Ingurumena). Bestalde, harremanak bultzatu dira kulturaren eta hezkuntzaren esparruan (topaketa, workshop, mintegi eta abarren multzoa, Euskampus Bordeaux Campusaren esparruan, unibertsitate- eta ikerketa-komunitate osoari irekia; goi-mailako irakaskuntzan hezkuntza berritzeko proiektua —Ocean i3 – Blue skills, Garapen Jasangarrirako Helburuetara bideratutako ‘research-based learning’ metodologian oinarritua—).

**Erresuma Batuan**, Euskadi Basque Country marka sustatzeko ahaleginak egin dira hainbat ekitalditan, hala nola Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen COP26 Konferentzian. Ahalegin horiek bideratu dira, halaber, UK-ko enpresei zuzendutako Webinars Invest in The Basque Country garatzera, BIND 4.0 ekimenari jarraipena ematera, Londresko Euskal Etxearekin bilerak egitera —Brexitaren jarraipena— eta Turismoko WTM azokan parte hartzera.

**Italian**, egindako jarduera gehienak enpresen nazioartekotzearen esparrutik bultzatu dira, euskal enpresa-ehunari hainbat azokatan (Bio Italia, EMO-Milano, ENLIT-Milan, ENLIT-Europe) parte hartzen laguntzeko, AFM klusterraren misio birtualean laguntzeko, eta fluidoak manipulatzeko sektoreko Euskadiko enpresei babesa emateko merkatu horretan posizionatzen eta finkatzen.

**Alemanian**, Euskadi Basque Country herrialde-marka sustatu da, eta sektore anitzeko euskal interesak babestu dira azoketan eta kongresuetan parte hartuta, hala nola honako hauetan: BCSC-IT Security Expo and Congress (Zibersegurtasuna), Wind Energy Europe (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza), Intersolar Munich (Enpresen Nazioartekotzea) eta ITB BERLIN (Turismoa). Berlinen egindako Europako Poliziaren 24. eta 25. biltzarretan eta ESNko (Hanburgo) komunitate-zainketei buruzko urteroko konferentzian ere parte hartu da.

**Asiako kontinentean**, 2021ean lehentasunezko jarduera Txinan, Indian eta Japonian kontzentratzen da.

**Txinaren** kasuan, Jiangsu-ren eta Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailen artean egindako bideokonferentziak nabarmentzen dira. Bideokonferentzia horien buru Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Osasuneko zuzendaria izan dira, Covid-19aren prebentzioan eta kontrolean eta etorkizuneko pandemietan laguntzeko. Sustapenari dagokionez, aipatzekoa da makina-erremintaren nazioarteko erakusketan parte hartu izana Beijing-en (Pekin), Txinan egiten den azokarik garrantzitsuenan. Euskal enpresek eta BasqueTrade-k parte hartzen dute zita horretan.

**Indian**, nabarmentzekoa da Indiako enbaxadoreak lehendakariarekin izandako topaketa eta Basque Trade and Investment-ek parte hartu izana ACMAk —Indiako Automobilgintzako Osagaien Fabrikatzaileen Elkarteak— antolatutako azokan.

**Japonian**, aipatzekoa da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Japoniako enbaxadorearekin izandako topaketa eta Japoniako bideari buruzko Kumano Kodo erakusketa antolatu izana, 2019ko azaroaren 17an Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Japoniako MIE Prefekturako agintariek sinatutako MOUren esparruan.

Azkenik, **Afrikaren** kasuan, aipatu behar da lehendakaria Senegalgo enbaxadorearekin elkartu zela 2021eko ekainaren 18an, eta zuzeneko dirulaguntza antolatu zela BC3 Elkartearentzat (Basque Centre for Climate-Change), Dakar-en eta Saint Louis-en (Senegal) klima-arriskuarekiko erresilientzia eta haren gobernantza hobetzeko.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

**EBC 2025** estrategiako **lehentasunezko herrialde** guztietan egin dira jarduerak, Hegoafrikan izan ezik. Guztira, lehen aipatu bezala, 218 jarduera egin dira **EBC 2025** estrategiako **lehentasunezko 18 herrialdetako** herrialde bakar batean.

Garatutako jarduera kopuruaren araberrako herrialdeen rankingean honako hauek dira nagusi: Estatu Batuak (33), Kolonbia (31), Txile (29), Frantzia (28), Mexiko (21), Italia (11), Alemania (10), Argentina (9), Japonia (9), Erresuma Batua (8), Kanada (6), Hego Korea (4), Danimarka (4), Senegal (4), Suedia (4), Finlandia (3), Txina (2) eta India (2).

**Kontinente amerikarrean** lehentasunezko herrialdeetan garatutako jarduera guztien % **59,2** erregratu dira. Jarduera Estatu Batuetan, Kolonbian, Txilen eta Mexikon ardatzu zen batez ere. Eusko Jaurlaritzak herrialde horietan guztietan ordezkariak propioa du.

**Estatu Batuetan**, garatutako jardueren % 75 baino gehiago Kanpo Harremanetatik bultzatu dira. Topaketak egin ziren, hala nola 2030 Tokiko Koalizioko Idazkaritza Orokorren aurkezpen ofiziala Euskadin, lehendakariaren parte-hartzearekin. Nazioarteko ekitaldiei dagokienez, nabarmentzekoa da Euskadik Estatu Batuetan duen ordezkariak parte hartu izana New Yorken urtero egiten den Nazio Batuen goi-mailako bileran, Eusko Jaurlaritzak Larrialdi Kasuetarako Ekintzarako Funts Zentralari (CERF) egiten dion ekarpena iragartzeko; Euskadik Estatu Batuetan duen ordezkariak urriaren 5etik 7ra Utah Valley-ko Unibertsitatean garapen jasangarrirako helburuei buruzko nazioarteko lehen konferentzia akademikoan parte hartu izana; eta abar.

Interes ekonomiko eta komertzialak misio komertzialen bidez sustatu ziren, hala nola: Chicagora eta Miamiara CAPRICE proiektuaren esparruan 3 jatorri-deituretako txakolinak sustatzeko egindakoa, IPF (The International Offshore Wind Partnering Forum) foroko misioa, Bio AEBko zuzeneko misioa edo Osasuneko sailburuaren parte-hartzea ICHOM Conference 2022an. Azpimarratzekoa da, halaber, NYC Basque Window ekitaldia: Euskadik Estatu Batuetan duen Ordezkaritzak Etxepare Euskal Institutuarekin batera antolatua. Antzerkia, literatura eta musika Euskadik duen sormen-energia eta -talentuaren erakusle izan dira.

**Kolonbian**, nabarmentzekoak dira Bogotako Gernikako Bonbardaketaren Oroitzapena, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bisita Kolonbiara —bertan, Cundinamarca-ko Gobernazioarekin, Kolonbiako presidente ohi Ernesto Samperrekin, Guido Echeverri senatariarekin, Bogotako Alkatetza Nagusiarekin eta Bogotako Euskal Etxearekin bildu zen—; eta Etxepare Institutuko Euskal Kultura Sustatzeko eta Zabaltzeko zuzendariaren bisitaldia Bogotara. Gainera, lan-agenda bizia eraman da kulturaren eta hezkuntzaren arloan hainbat erakunderekin aliantzak egiteko aukeretan aurrera egiteko eta bakearen, bizikidetzaren, dibertsitatearen, elkartasunaren eta giza eskubideen aldeko nazioarteko ekimenak babesteko. Hezkuntzaren arloan, nabarmentzekoa da Kolonbiako SENAREN zentroetara egindako bisita teknikoa. SENAKo ordezkarien bisita

2023ko martxorako planifikatu zen, eta lankidetzaz hitzarmen bat prestatzen ari dira. Enpresa arloan, nabarmentzekoak dira Kolonbiako trantsizio energetikoari buruzko zenbait webinar; logistika eraginkorragoa Kolonbian; ezagutzaren transferentzia Cundinamarcako Gobernazioaren, Bogotáko Elikadura eta Gastronomia Klusterraren eta Euskadiko Elikadura Klusterraren artean.

**Txilen**, Euskadik Txilen duen ordezkariaren eskutik, hainbat koordinazio-bilera eta hitzarmena sinatzeko proposamen bat egin ziren TXILEko BIOBÍO eskualdearekin. Horren emaitza da Biobío-ko gobernadore Rodrigo Diazek Euskadira egindako bisita, martxoaren 22tik 25era, eta ingurumen-arloko lankidetzaz bultzatzeko Biobío-ko (Txile) Garapen Agentziarekin Elkar Ulertzeko Memoranduma sinatu izana. La Araucanía-ko gobernadoreak ere bisitatu zuen Euskadi. Kulturaren arloan, Txileko Cineteca Nacional-ekin jarduerak batera egiteko sinatutako akordioa nabarmentzen da. Aurreikusitako dago euskal zinemari buruzko ziklo bat egitea, Euskadiko Filmategiarekin eta La Moneda kultur etxearekin elkarlanean. Programan eta litezkeen datetan lanean ari dira. Irailaren 8an Euskal Diasporaren Eguna gogoratzeko ekitaldi bat egin zen Txileko Unibertsitate Katolikoko ikasleekin.

**Mexikon**, garatutako jarduerak bideratu dira, batez ere, harremanak estutzera eta euskal interes sektorialak eta ekonomikoak sustatzera. Emakundeko ordezkariak eta Euskadik Mexikon dituen ordezkariak bilerak egin dituzte CONAVIM Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitzeko eta Desagerrarazteko Batzorde Nazionalarekin, bi aldeek sinatutako akordioaren arabera; Euskadik Mexikon duen Ordezkaritzaren bisita Chihuahua-ra; etab. Eskualde-mailan loturak izan dira honako estatu hauekin: Nuevo León (Euskadik Mexikon duen Ordezkaritzaren bisita Nuevo Leónera edo aldebiko bilera Nuevo León Software Klusterraren eta GAIA Euskal Klusterraren artean) eta Querétaro (Querétaroko Gobernuaren bisita Euskadira).

**Europako** jarduerak lehentasunezko herrialdeetan egindako jardueren % **31,2** biltzen ditu, eta **Frantzia, Italian, Alemanian eta Erresuma Batuan** ardatzatu zen.

**Frantzia**, Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euroeskualdearen barruan mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko kohesioa indartzeko lanean jarraitu da, baita Euroeskualdeko Batzar Nagusian lankidetzaz eta lurraldearen egituraketa areagotzeko ere, Adimen Teknologikoko Laborategi berrian eta antzeko proiektuetan. Aipagarria da Lehendakariak Korsikara (lehentasunezko eskualdea da) egindako bisita ofiziala, non Gilles Simeoni korsikar kolektibitatearen presidentek harrera egin zion. Gainera, Korsikako Biltzarreko kideen aurrean hitz egin zuen, eta Marie-Antoinette Maupertuis haren presidentearekin bildu zen. Euskadiren eta haren eragileen irudia ere sustatu da ekitaldi sektorialetan, hala nola MOTek antolatutako Borders Forum-en, Mission Opérationnelle Transfrontalière-n eta URBACT City Festival 2022 nazioarteko topaketan (#URBACTfest) —Pantinen (Paris Handia) hiri jasagarrien inguruan antolatutakoan—, Europar Batasunaren Frantziako Lehendakariarekin eta Europako URBACT programaren esparruan.

Hezkuntzaren arloan, lehendakariak Donostian inauguratu zuen Haur Hezkuntzako ikasleentzat euskarazko eta frantsesezko murgiltze-eredua eskaintzen duen Euskadiko mugaz gaindiko lehen ikastetxea. Ikastetxeak 2020-2021 aldian zabaldu zituen ateak, baina inaugurazio ofiziala atzeratu behar izan zuten, pandemiaren ondorioz.

**Italian**, egindako jarduerak gehienak euskal enpresa-ehuna nazioartekotzen laguntzera bideratuta egon dira: Italia Roadshow, zuzeneko jardunaldiak Italiako turismo-sektorearekin B2B bileren bidez; SAFERAn parte hartzea, ikerketaren programazioan laguntzen duten eta industria-segurtasunaren arloan baterako deialdiak egiten dituzten Europako 10 herrialdeko ikerketa finantzatzeko 21 erakunderen arteko elkarteak; Cybertech Europe 2022an delakoan parte hartzea, Erroman; etab. Azkenik, aipatzekoa da EDIH Toscana X.0 EDIHrekin (Italia) egindako bilera. Ikerketaren eta teknologia-transferentziaren arloko eragile toskanar nagusien federazioa da Toscana X.0 (TX0).



**Alemanian**, Euskadi Basque Country herrialde-marka sustatu da, eta euskal sektore anitzeko interesak babestu dira merkataritza-misioetan parte hartuta (bisitak Bavariara—Bayer eta Bavierako Gobernu— eta Baden-Württemberg-era bisitak —Trumpf, Daimler—), azoketan parte hartuta (IFAT, uraren, hondakin-uren, hondakinen eta lehengaien kudeaketaren arloko munduko azoka liderra), baita ENCOREko Batzorde Exekutiboan eta workshop-etan, eta Bi Urteko Konferentziaren eta YouthCore-ren prestaketa-jardueretan parte hartuta ere; eta Europako Poliziaren 25. Kongresuan parte hartuta, Berlinen. Maila instituzionalean, lehendakariak Saxoniako Legebiltzarreko Eskualde Garapeneko Batzordeko kideen bisita jaso du (Kanpo Harremanak).

**Erresuma Batuan**, 2022ko jarduerak hezkuntzaren gaian ardatz da erabat: Hezkuntzako sailburuaren bilera Cambridgeko Unibertsitateko ordezkariekin; bilera University of the Arts Londoneko ordezkariekin, KSIgune klusterraren esparruan lankidetzak ezartzeko; lankidetzak Cardiffeko Unibertsitatearekin, Enpresa + Unibertsitatea programa bat diseinatzea ahalbidetuko duen lankidetzak-hitzarmen baten oinarriak ezartzeko, Euskal Unibertsitate Sistemaren eta Galesko unibertsitateen artean lankidetzan. Enpresa-mailan, nabarmentzekoa da Hotel Heziketa Teknikoko Elkarteak Galesko zibersegurtasun-ekosistemara egindako bisita.

**Asiako kontinentean**, EBC 2025 estrategiak Japonian, Hego Korean, Txinan eta Indian jartzen du fokua, herrialde horietan biltzen baitira lehentasunez nazioartekotze-jarduerak.

**Japonian**, nabarmentzekoa da Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Japoniara egindako bisita eta Motor-Euskadi-Japonia 2023 taldearen bilerak. Bilera horietan erabaki zen alde biko harremanak hastea enpresa, kultura, turismo, nekazaritzako elikadura eta kanpo-harremanen arloetako Eusko Jaurlaritzako solaskideen eta haien homologoen artean. Azokei dagokienez, nabarmentzekoa da Tokioko JATA Azokan (Turismoa) parte hartu izana. Era berean, interes handikoa da CHAFEAK (Kontsumitzaileen, Osasunaren, Nekazaritzaren eta Elikaduraren Agentzia Exekutiboak) hirugarren herrialdeetan produktu europarrak sustatzeko proiektua onartu izana. Horren helburua da, zehazki, Euskadiko jatorri-deitura babestudun txakolinak, Euskolabeldun Ibarako piperminak eta Euskal Herriko Kantauriko kontserbak (antxoak eta hegaluzea) sustatzea Japoniako (eta AEBko) merkatuetan.

**Hego Korean**, Basque Trade and Investment-en bulegoa ireki izana nabarmentzen da. Mugarri horretaz gain, 2022an egindako jarduera bakarra da Etxepare Institutuko Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Kultura Saileko zuzendaria Jeonnam-eko Museoko zuzendariarekin bildu izana, Euskadiko arte garaikideko museo batekin lankidetzan aritzeko bideak aztertzeko, erakusketak trukatzeko helburu hartuta.

**Txinaren** kasuan, nabarmentzen da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren esku-hartzea "Jiangsu-ko Hiri Lagunen Nazioarteko Astea"-n, eta SinoPerMed bilera. Bilera horren helburua da medikuntza pertsonalizatuari heltzeko erronkan Txinaren eta Europar Batasunaren artean esparru komun bat ezartzea.

**Indian**, Enpresen Nazioartekotzearen arloko jarduerak nabarmentzen dira: Memorandum of Understanding memoranduma sinatzea Indiako PHDCC enpresa-elkartearekin, berriazko intereseko arlo batzuk identifikatuta, hala nola altzairuaren fabrikazioa eta ekipamendua, energia berriztagarriak, ingurumena eta gorabidean dauden enpresak. Aipatzekoa da, era berean, Surat-eko (India) eta Munduko Bankuko ordezkariak batek egindako bisita —goi-mailako funtzionarioak, Tapi ibaiaren proiektuko esku-hartzeak kudeatzeaz eta gauzatzeaz arduratuko direnak—; eta Singapurreko/Indiako ordezkariak batek egindako bisita, Lehen Mailako Arretaren eredu eta ospitaleko arretaren esparruarekiko haren koordinazioa ezagutzeko.

Azkenik, **Senegalen** kasuan, lehentasunezko zat jotako herrialde afrikar bakarra den aldetik, Senegalera egindako jarraipen-bidaia aipatu behar da, eLankidetzak herrialdean lagundutako garapenerako lankidetzak-ekimeneen esparruan. Eusko Jaurlaritzak Senegalgo toki-erakundeen ahalmenak indartu daitezzen laguntzen jarraitzen du.

## 4.3.

### Lehentasunezko eskualdeetako jarduera

#### 2021EKO JARDUERAREN EMAITZAK

Lehentasunezko eskualdeen kasuan, nabarmendu egin zen kontinentean egindako jarduera, batez ere Akitania Berria - Ipar Euskal Herrian (Frantzia) eta, neurri txikiagoan, Quebecen (Kanada), Jiangsu-n (Txina), Flandrian (Belgika), Galesen (Erresuma Batua) eta Querétaron (Mexiko).

**Akitania Berria - Ipar Euskal Herriaren** kasuan, mugaz gaindiko proiektuak bultzatzen jarraitzen da. Osasunaren sektorean, nabarmentzekoa da Akitania Berriko / Euskadiko Bioosasun Industrien 6. Topaketak egin izana. Topaketa horien helburua da osasun-sektoreko erakunde publiko eta pribatuetako industrialarien eta ikertzaileen arteko lankidetzak-proiektuak bultzatzea, baita VASADIN proiektua garatzea ere, AECT Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen deialdiak finantzatua eta Biodonostia Ollk koordinatua. Nabarmentzekoa da, halaber, 2021ean Akitania Berriko Technopole-en bisita, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko (EPTSk) berrikuntza- eta ekintzailatza-eko sistema ezagutzeko. Hezkuntzari dagokionez, nabarmentzekoa da Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko Batzarrean parte hartu izana, Akitania-Euskadi-Nafarroa unibertsitate-koordinazioa diseinatzeke, eta goi-mailako irakaskuntzan hezkuntza berritzeko Ocean i3 – Blue skills proiektua, 'research-based learning' metodologian oinarritua eta Garapen Jasangarrirako Helburuetara bideratua.

**Quebecen** nabarmentzekoa da Quebecoko Ekonomia eta Berrikuntza Ministerioko ordezkarien eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako zuzendariaren eta BRTA – Basque Research Technology Alliance-ko ordezkariaren arteko topaketa birtuala, material arraroen arloko informazioa trukatzeko eta horretan sakontzeko. Esparru akademikoan, Université Laval eta EuskalPen Elkartearekin lankidetzan, "Besteen ahotsa / La voix des autres" jardunaldia antolatu da hizkuntza ez-hegemonikoetako literatura- eta hizkuntza-aniztasunaren inguruan.

**Jiangsu-n (Txina)**, nabarmentzekoa da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eta Jiangsuko Kanpo Arazoetarako Bulegoko zuzendariorde nagusi Yang Jing-en aren arteko bilera birtuala —besteak beste, bideokonferentziak antolatzeko bi gobernuetako osasun sailen artean, Covid-19aren prebentzioan eta kontrolean eta etorkizuneko pandemieta laguntzeko—; Etxepareren eta Jiangsuko Kultura Sailaren artekoa, etorkizuneko lankidetzak eta bideokonferentziak aztertzeke (ondoren gauzatu egin ziren). Adostu zen, era berean, pandemia gainditu ondoren Jiang-eko ordezkariak batek Learning Tour bat bisitatzea, Euskadi ezagut zezaten.

**Flandesen** kasuan, kulturaguneak sortzen jarraitzea da helburua. Horretarako, 2021eko azaroan, Flandesko kultur arloko ordezkari bat gonbidatu zen Euskadira, bertako erakundeak eta kultur eragileak ezagutzeko eta topaketa kultural batzuetan parte hartzeko, 2019an Quebecekin egin zen bezala.

**Galesi** dagokionez, 2021ean Galesko lehen ministroak eta Iñigo Urkullu lehendakariak uztailen amaitzen zen Elkar Ulertzeko Memorandumaren luzapena sinatu zuten.

**Querétaron**, Querétarok eta Euskadik sinatutako MOUren jarraipenean ardatzen da jarduera. Gobernadore hautatu berriarekin eta kabinetearekin harremanak ezartzea. Gaiak: garapen ekonomikoa, hezkuntza, kultura. Querétaroko gobernadorea, bere kabinetearekin batera, Querétaron ezarritako euskal enprekin biltzen da, seiurtekoan izandako jardunari buruzko iruzkinak entzuteko.

## 2022KO JARDUERAREN EMAITZAK

Lehentasunezko eskualdeen kasuan, nabarmendu egin zen Akitania Berria - Ipar Euskal Herrian (Frantzia), Quebec-en (Kanada), Galesen (Erresuma Batua) eta Querétaron (Mexiko) gauzatutako jarduera.

**Akitania Berria - Ipar Euskal Herriaren** kasuan, lehendakariak parte hartu zuen, Akitania Berriko Eskualde Kontseiluko presidentearekin eta Jean-Réné Etchegaray Ipar Euskal Herriko Mankomunitateko presidentearekin batera, Hendaiako Truke Multimodaleko Zentroaren (Hendaiako Topoaren geltokia barne) inaugurazioan. Era berean, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Jean-René Etchegaray Ipar Euskal Herriko Erkidegoko presidentek beren lurraldeen arteko lankidetzari indartu dute iragaitzako migratzaileei arreta emateko, Irunen egindako lan-jardunaldi baten bidez.

Ikuspegi sektorialetik, mugaz gaindiko proiektuak bultzatzen jarraitzen da, hala nola Next-Care proiektua. Mugaz gaindiko Europako Poloa ABEN Euroeskualdean (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa). Era berean, eta mugaz gaindiko kulturari-programaren esparruan, 2022an 10 jarduera garatzen dira, 50 proiektu inguru babestu dira eta musikari lotutako 13 euskal leiho egin dira. Hizkuntza-politikari dagokionez, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Nafarroako Foru Komunitateko Euskarabideak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskara sustatzeko sinatutako hitzarmena. Hiru erakundeek sinatutako hitzarmenak sustatu egiten du lankidetzari hezkuntza formalean, helduen euskalduntzean, hizkuntza-gaitasunen egiaztapenean, hizkuntzaren erabileraren ikerketan eta euskararen erabileraren sustapenean (hainbat arlotan).

**Quebecen**, 2022an, energia eta hidrogenoa biltegitatzearen arloan hasitako lankidetzari koordinatu eta haren jarraipena egin da, BRTAko Zuzendaritzaren eta, Quebecen aldetik, Ekonomia eta Berrikuntza Ministerioaren eta Kanpo Arazoetako Ministerioaren inplikazioarekin eta lankidetzarekin. Era berean, kulturaren esparruan, 2022an 2020rako aurreikusitako jarduera-programa garatu da. Izan ere, Covid-19ak eragindako egoeragatik, 2020ko programan planifikatutako jarduera guztiak bertan behera geratu ziren.

Galesi dagokionez, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea Hizkuntzen Erabilera Sustatzeko Espazio Seguruei buruzko NPLDren Konferentzian eta Galesekin lankidetzari teknikoan aritzeko proiektuan —4GUNE—; lankidetzari Cardiffeko Unibertsitatearekin, Enpresa + Unibertsitatea programa bat diseinatzea ahalbidetuko duen lankidetzari-hitzarmen baten oinarriak ezartzeko, Euskal Unibertsitate Sistemaren eta Galesko unibertsitateen artean lankidetzan.

Azkenik, **Querétaroren** kasuan, Querétaroko Aero Klusterraren eta HEGAN Euskal Klusterraren arteko aldeko harremana sustatzeko eta jarraitzeko jarduerak nabarmentzen dira, baita Nuevo Leónko Energia Klusterraren eta Euskadiko Energia Klusterraren artekoa ere. 2022ko martxoan, Querétaroko Gobernuak Euskadi bisitatu zuen.



2021-2022 ALDIKO  
JARDUERAREN  
MONITORIZAZIOA



EBC 2025 estrategiak jardura monitorizatzeko sistema bat ezartzen du. Sistema horretan, egin-dako nazioartekotze-jarduketa bat amaitu izana berretsi behar da, zenbakizko balio bat eman behar zaio, jardueraren egikaritze-maila eta, bai EBC 2025 strategiaren jardun-maila orokorra, bai sei jardun-adierazleen betetze-maila neurtu ahal izateko.

2021-2022an, Monitorizazio Sistemaren barruan **1.914 estatistika-gertaera** erregistratu ziren Eusko Jaurlaritzaren eta bere Sektore Publikoaren aldetik.

2021-2022an erregistratutako jardueren analisitik ondorioztatzen dugu egikaritu diren edo egikaritze-prozesuan dauden 1.914 jarduerak % 32,7ko ekarpen globala egin dutela 2021-2025 bosturtekorako aurreikusitako helburuetan.

#### 74. TAULA. EBC 2025 ESTRATEGIAN EZARRITAKO HELMUGETAN OINARRITUTAKO NAZIOARTEKOTZE-JARDUEREN EGIKARITZE-EHUNEKOA

ADIERAZLEA		EBC 2025 HELMUGA		
		%	Balioa	Helmuga
<b>1.AD</b>	1.AD. Atzerriko euskal misio eta ordezkariak antolatzea	<b>% 34</b>	119	350
<b>2.AD</b>	2.AD. Aldebiko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuetan eta nazioarteko sareetan kolaboratzea eta parte hartzea	<b>% 47</b>	328	700
<b>3.AD</b>	3.AD. Euskadik protagonismo aktiboarekin parte hartzea (adibidez: stand propioa azoka batean, hizlaria foro batean, edo argitalpen baten egileetako bat izatea) nazioarteko ekitaldi, argitalpen eta foroetan	<b>% 51</b>	311	610
<b>4.AD</b>	4.AD. Ekitaldietan/konferentzietan eta/edo alde anitzeko bilertan izandako bestelako bertaratzeak edo parte-hartzeak (prospekzio-ikuspegiarekin, bertaratutako eragile gisa eta rol protagonistarik gabe)	<b>% 15</b>	121	785
<b>5.AD</b>	5.AD. Euskadin dauden atzerriko ordezkarien topaketak eta/edo harrerak (Euskadi bisitatzen duten nazioarteko ordezkariak erakartzeko, hartzeko eta arretea emateko jarduerak)	<b>% 28</b>	120	435
<b>6.AD</b>	6.AD. Euskadiko nazioartekotze-ekosistemaren eragileei zuzendutako finantzaketa eta laguntza ekonomikoko programak	<b>% 15</b>	51	330

## 1.AD. ADIERAZLEA

### 75. TAULA. 1.AD. ADIERAZLEA. ATZERRIRAKO EUSKAL MISIO ETA ORDEZKARITZAK ANTOLATZEA

1.AD. ATZERRIRAKO EUSKAL MISIO ETA ORDEZKARITZAK ANTOLATZEA		EBC 2025 HELMUGA			2021		2022	
		%	Balioa	Hel- muga	%	Balioa	%	Balioa
<b>Arlo informatzailea</b>	<b>Saila</b>	<b>% 34,00</b>	<b>119</b>	<b>350</b>	<b>% 12,57</b>	<b>44</b>	<b>% 21,43</b>	<b>75</b>
Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia	Lehendakaritza			-				
Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia	Lehendakaritza	% 12,57	44	-	% 3,71	13	% 8,86	31
Kabinete Zuzendaritza	Segurtasun Saila	% 0,86	3	-	% 0,29	1	% 0,57	2
Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	% 0,57	2	-			% 0,57	2
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 1,14	4	-	% 1,14	4		
Industria Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 0,57	2	-			% 0,57	2
Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 0,29	1	-	% 0,29	1		0
Basque Trade	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 8,00	28	-	% 3,43	12	% 4,57	16
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila			-				
Lanbide Heziketako Sailburuordetza	Hezkuntza Saila	% 0,29	1	-	% 0,29	1		
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	Hezkuntza Saila	% 2,29	8	-	% 1,14	4	% 1,14	4
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	% 1,71	6	-			% 1,71	6
Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	% 0,29	1	-			% 0,29	1
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	% 1,43	5	-	% 1,14	4	% 0,29	1
Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	% 0,29	1	-	% 0,29	1		
Etxepare Institutua	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	% 0,29	1	-	% 0,29	1		
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	% 1,43	5	-			% 1,43	5
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Lehendakaritza	% 1,43	5	-			% 1,43	5
Emakunde	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	% 0,57	2	-	% 0,57	2		

## 2.AD. ADIERAZLEA

### 76. TAULA. 2.AD. ADIERAZLEA. ALDEBIKO EDO ALDE ANITZEKO NAZIOARTEKO PROIEKTUETAN ETA NAZIOARTEKO SAREETAN KOLABORATZEA ETA PARTE HARTZEA

2.AD. ALDEBIKO EDO ALDE ANITZEKO NAZIOARTEKO PROIEKTUETAN ETA NAZIOARTEKO SAREETAN KOLABORATZEA ETA PARTE HARTZEA		EBC 2025 HELMUGA			2021		2022	
		%	Balioa	Hel-muga	%	Balioa	%	Balioa
<b>Arlo informatzailea</b>	<b>Saila</b>	<b>% 46,86</b>	<b>328</b>	<b>700</b>		<b>159</b>		<b>169</b>
Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia	Lehendakaritza	% 0,43	3	-		2		1
Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia	Lehendakaritza	% 24,57	172	-		106		66
Kabinete Zuzendaritza	Segurtasun Saila	% 1,29	9	-		2		7
Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetza	Lan eta Enplegu Saila	% 0,14	1	-				1
Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza	Lan eta Enplegu Saila	% 0,14	1	-				1
Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	% 0,14	1	-				1
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 1,71	12	-		6		6
Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 0,71	5	-		5		
Ingurumen Sailburuordetza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 0,00	0	-				
Basque Trade	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 2,00	14	-		9		5
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	% 0,14	1	-		1		
Lanbide Heziketakoko Sailburuordetza	Hezkuntza Saila	% 0,86	6	-		1		5
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	Hezkuntza Saila	% 2,57	18	-		10		8
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	% 1,00	7	-				7
Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	% 0,43	3	-		1		2
Etxebizitza Sailburuordetza	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	% 0,29	2	-		2		
Kabinete Zuzendaritza	Osasun Saila	% 0,71	5	-				5
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketakoko Saila	% 1,86	13	-		2		11
Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	% 0,14	1	-		1		



Etxepare Institutua	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailsa	<b>% 5,71</b>	40	-		4		36
Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailsa	<b>% 0,57</b>	4	-		2		2
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Lehendakaritza	<b>% 0,29</b>	2	-				2
Emakunde	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailsa	<b>% 0,43</b>	3	-		1		2
Hezkuntza Sailburuordetza	Hezkuntza Sailsa	<b>% 0,71</b>	5	-		4		1

### 3.AD. ADIERAZLEA

77. TAULA. 3.AD. ADIERAZLEA. EUSKADIK PROTAGONISMO AKTIBOAREKIN PARTE HARTZEA (ADIBIDEZ: STAND PROPIOA AZOKA BATEAN, HIZLARIA FORO BATEAN, EDO ARGITALPEN BATEN EGILEETAKO BAT IZATEA) NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA FOROETAN

